

2004ko uztaila

29. zenbakia

aikur!

txorierriko



Fede Merino

Irratiko "bacalao" a, 20 urte pil-pilean

Derioko I. gala - Oreka Tx - Bitor Ugalde - Lezama eta Larrabetzuko jaiak

Argitaratzailea: TOTOAN,
Txorierriko Euskara Elkarteen
Federazioa
(Lagatzu, Zorritzeta, Arrekikili)
Tf.: 94 452 34 47
e-posta: totoan@topagunea.com
aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe
Erredakzio burua: Itxaso Marina
Erredakzio taldea: Fernando
Larrondo, Jose Angel Mentxaka,
Alberto Legarreta, Mari Tere
Onaindia, Amagoia Guezuraga,
Belen Gana.

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao,
Juanxu Bilbao, Lurdes Lasuen, Asier
Oruetxebarria, Juan Luis Goikoetxea,
Fernando Olabarrieta, Oihana
Astobieta, Maripi Agirre, Amaia
Errementeria, Aner Mentxaka,
Etxahun Lekue, Iñigo Gaztelu, Jabi
Agirre, Jorge Gaztelu, Lezamako
Gailur Mendi taldea, AEK-ko
Txepetxa euskaltegiko uda taldea,
Arrekikili, Joseba Aresti, Aritz ta
Nagel.

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la
Cuadra, Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi

Banaketa: Arantza Atxutegi, Beñat
Aiertza

Maketatzailea: Ainara Torres

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN
1578-9322

Aikor!-ek ez dau bere gain
hartzten aldizkariaren adierazi-
tako esaneren edota eritxien
erantzukizunik.




diruz lagundutako aldizkaria



20-25 Larrabetzu eta Lezamako jaiak



26 Lezamako pilota eskola



11 Oreka Tx



10 Derioko Merkataritza eta
Zerbitzuetako I. Gala



13 Bitor Ugalde



14 Izaskun Kortazar

AURKIBIDEA

4Eritxia 5Gutunak 6Laburrak eta albisteak 10Derioko I. gala
11Gurean izan da... Oreka TX 12Gazteen txokoa 13Gaztea eta... Bitor
Ugalde 14Izaskun Kortazar 16Fede Merino 20Larrabetzuko Andra
Mari jaiak 23Lezamako Andra Mari jaiak 26Lezamako pilota eskola
28Osasuna 29Teknologia 30Txorierri ezagutu 31Txorierriarrak
munduan 32Sukaldaritza 33Denbora pasa 34Agenda

**AIKOR! aldizkariaren laguntzailea izan gura badozu,
hemen dozu erea:**

Izen-abizenak _____

Helbidea _____

Telefonoa _____ e-posta _____

Bankuko 20 zenbakiak _____

Egin zure aukera: 20 euro____ beste kopuru bat____

Orri hau helbide honetara bialdu: Aresti, 2 48170 Zamudio
zure laguntzagaz aldizkaria hobetuko dogu!

Gurasoak eta oporrak



Fernando Olabarrieta
Familiaren Psikologiako irakaslea (UPV/EHU)

Ez nuke gura bere oporraldia inori izorratzerik, edo gehienontzat urteko denboraldi laburrena eta desiratuena errudun sentimenduz landatzerik. Gurako nuke, oster, seme-alaba txikiak dituzten gurasoen gogoeta batzuk ere, seme-alabekin egoteko eta familia barruko elkarrekintzak bideratzeko denbora gehien izaten den sasoiari, hain zuzen ere. Eta esango ditudanak, ez dira nire iritziak beste barik, ikerlan baten ondorioetatik *helduta* iritziak baitira kasurako.

EAEko bost urteko seme-alabaren bat duten familiei *argazki* bat egin diegu. Aspektu psikologikoak neurtzeko punta-puntako *tresneriarekin* egin eta digitalizatu ondoren —*kamara onarekin, argitasun, foko-tarte, kontrastatzen* eta abarreko ezaugarri egokienekin—, hauxe ikusten da *argazki* horretan:

Batetik, eta argazkiaren osotasunari begiratzean, munduko beste leku eta kultura askotan ikusten den gauza bera ikusten da hemen ere, *kalitatezko familia-ingurune batean* bizi diren neska-mutikoek puntuazio hobea lortzen dutela ezagutzaren garapenean eta garapen sozio-emozionalean: adimena indar handiagoz garatzen dute eta helduagoak dira banaka zein gizartearen.

“Ez dugula zertan beldurrik izan behar arauak ezarri eta betearazteko seme-alaben aurrean”

Bestetik, eta argazkiaren zehaztasunak aztertuz, azterlan honetarako erabili ditugun gurasoek, oro har, ondo hazten dituzte umeak, eta kalitatezko familia-ingurunea eskaintzen diete haurrei, baina badira hiru alderdi hobetu daitezkeenak: (1) gehiegizko permisibitate joera, (2) bikoteko kideen arteko *gatazketan* aurrean edukitzea umeak eta (3) seme-alabei harreman sozial egonkorretarako aukera emateko orduan inplikazio txikiak gurasoen partetik. Esandakotik atera ditzakegun ondorio zehatzak hauexek dira: ez dugula zertan beldurrik izan behar arauak ezarri eta betearazteko, seme-alaben aurrean ez dela agresibitatez eztabaibatu behar eta eskolan edota bizi diren tokian euren kidearekin harreman sozial egonkorra egin ditzaten saiatu behar dugula.

Eta guzti honek beste garrantzi handiko ondorio nagusi bat dakar: gurasoek jabetu egin behar dute eurek eratzen duten familia ingurunearen inportantzia, izan ere euren egitekoa ezin du inork ordezkatu-eta, ez eskolak ezta gizarteak. Sistema politikoaren eta hezkuntza-sistemaren laguntza beharrezkoa da, duda barik (eta horren gainean ere berba egin beharko dugu beste egun batean, leku gehiagorekin), baina argi dago prebentziozko esku-hartzerako ingurune bat dela familia, eta hori dela kalitate handieneko esku-hartzea, zeren eta arazoak agertu aurretik ekiten baitaio lanari.

Eta amaitu gurako nuke antzinako beste *argazki* ezagun bat ere aipatuz, beste esaera asko eta askoren artean G. Garatek batutakoa, gure hezkuntza-sistema tradizionalaren adierazgarri: *umearen zentzuna, etxean entzuna*.

(Esandakoaz zeure iritzia edo beste iritzia bota gura baduzu... bolualde@ss.ehu.es)

Ordenagailuak agur eta nik negar



Asier Oruetxebarria
(Irakslea)

Ez dot inoiz dudarik euki, ordenagailuek laguntzen daukue. Nire eguneroko eginkizunetan lan handia aurrezten dauste eta aplikazio izugarriak lortzen dodaz neure lanbidean, irakaskuntzan. Bai testuak prozesatzeko, notak ipintzeko, grafikoak egiteko, Interneten informazioa lortzeko eta hainbat gauzatarako. Baina aurreko hilean, ekainan, hainbat ordu lapurtu dautan itzulpen bat prestatu behar neban, eta zer gertatu jatan? Ba ordenagailua apurtu egin jatala. Agur datuak, agur itzulpena, agur dana. Ordenagailuak agur eta nik negar. Erabiltzaile arrunt bat naz, informatika kontuetan ez nauzue batere jantzia, eta informazioa berreskuratzeko hainbat buelta eta mesede eskatu behar izan dodaz. Hasierako esaldiari barriro begiratuz, beselako erantzuna jatorri burura: ordenagailuek laguntzen daukue ondo dabilzanean (edo agian, ondo erabiltzen doguzanean), baina txarto ibili ezkerro geure hondamendi bihurtzen dira.

Geure morroi izan beharrean geu bihurtu gara euren morroi. Ordenagailu barik ez goaz inora. Nori ez jako holango bat gertatu: Udaletxera, Iberdrolara edo bankura joan eta leihatilakoak esan: “Parkatu, ezin dogu eragiketarik egin. Sarea jausi egin jaku”. Sarea jausi, nora? Lurrera? Geu gagoz nahaspilatuta sarean. Imaginatu, momentu batean baino ez, ordenagailu bako bizitza, Zenbat denpora egingo genduke atzera? Horregaitik dinot morroitzaren asunto hori ez dagoela batere argi.

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, Aikori!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aretxalde 1, 48196 Lezama edo aikortxori@yahoo.es

Ainhoa Derion? Zergatik ez?

Ekainaren 25ean, udalerrria promozionatzeko gala bat antolatu zuten Derioko Udalak eta Herriko Dendari eta Zerbitzuetako Elkartek. Bertara Ainhoa Operación Triunfo telebista saioko irabazlea etorri zen eta horrek polemika piztu zuen. Herriko dendaria naizen aldetik, argitasun batzuk eman nahi ditut:

Lehenengo eta behin adierazi nahi dut edonork edozer antolatzeke eskubide demokratikoa duela. Zenbat buru hainbat aburu. Baina ekitaldi honekin gaizki ulertu handiak izan direla iruditzen zait, bai OTko kontzertu batera zihoala pentsatzen zutenaren partetik, eta bai herria ekitaldiaren kontrako karteekin josi, boikota planteatu eta musika "alternatiboa" aldarrikatu dutenen partetik ere.

Ekitaldi hau ez zen ekitaldi kulturala izan: helburua udalerrria eta bertoko komertzio eta zerbitzuak promozionatzea baino ez zen. Beraz, ez dezagun korapiloric egin "kultura eta musika partehartzailea" aldarrikatuz. Ekitaldi komertziala zen eta galdakarra —bere musika gustukoa izan ala ez— komunikabide eta herritarren aurreko gantxo moduan kontratatu zen —eta alde horretatik arrakasta itzela lortu zen—.

Ainhoak —modako pertsonaia bera— moda kaleratzeko antolatutako ekitaldi baten hartu zuen parte. Besterik ez.

Multinazionalen esku dagoen musikaria dela leporatu ziguten, beste batzuk izango ez balira bezala, esaterako, edaten

dugun Coca-Cola, entzuten dugun Bob Marley, janzen dugun modako arropa, jaten ditugun hanburgesak eta, zelan ez, goizaldean txosnetan hain gustura dantzatzaren dugun musika.

Erdalduna da, bai, baina Derion aspaldi da ez dela antolatzen euskarak halako leku handia izan duen ekitaldirik, eta pertsona erdaldun horrek ere hainbat gauza esan zituen euskaraz. Erdaldunak dira Euskal Herrian gustura ikustera joaten garen beste talde asko ere: Extremoduro, SA, La Polla, Alex Ubago, La Oreja...e.a.. Eta hori ingelesez abesten duten taldeak aipatu barik... Eta geure bizitza pertsonalean, zein hizkuntza erabiltzen dugu?

Hau adieraziz, ez dut esango ez zela akatsik egon, izan ere, denon iritzia eta denon laguntza ona da herriko denda txiki eta zerbitzuak aurrera ateratzeko. Aukera izango da gauzak hobeto egiteko, urte gehiagotan antolatzeke asmoa dugu eta. Baina, hori bai, kritikarako irekita egon arren, mesedez, pentsatu nor kalte-tzen den, ematen diren argudioak arrazoitu eta, batez ere, ekitaldien helburuak gogoan izan, herriko denda eta zerbitzuetako gehienok ilusioz lan handia egin dugu eta.

Eskerrik asko Derio!

Amaia Rementeria

Larrabetzuko berba lagunak

Ekaineko egun luzeenak joan dira eta udako etenalditxoari hasiera emateko, afari kantaria antolatu dugu aurton. Bertan, urtean zehar astero euskara hutsean berba egiteko bildu garenok, berba egiteaz gain, kantatuz ere gozatu ahal izan dugu. Kantu zaharrak, herrikoiak, berriak... eta tartean irrintziak egi-tera be ausartu zen baten bat. Aparta giroa!

Urte honetan hogeita bost bat lagun izan gara berba lagun, eta bai euskaldun zaharren iritzian bai euskaldun berrienean, merezi duela uste izan dugu. Horregatik, jende gehiago animatu nahi dugu joko honetan sartzera. Bakarrik eskatzen da euskaraz jakitea edo gehiago jakiteko gogoia izatea, eta jakina, berba egiteko prest egotea.

Berba lagun izan gura baduzu, Arrekikilin edo Udal Liburutegian eman zure izena. Ez zara damutuko!



Arrekikili (Larrabetzuko euskara elkarte)

Iraia Iturregi Loiuko jaietako pregonaria

Ekainaren 25ean Loiuko jaiak hasi ziren. Aurten berritasun batzuk izan dira, esaterako, jaitsiera eta pregoia. Jaitsieran 100 loiuztarrek hartu zuten parte, eta pregoia Iraia Iturregi Athletic taldeko jokalariek irakurri zuen. *"Oso pozik nago nirekin gogoratu direlako... Ez nuen espero"*, esan zigun Iraiak. Athletic-eko futbolariak errespetuz eta familia zein lagunekin batera jaietz gozatzeri gonbidatu zituen herritarrei. *"Herri txikia da gurea, baina harro nago loiuztarra izateaz. Plazara jende asko bildu da, umeak batez ere, eta ohitura hau mantenduko dute etorkizunean, ziur asko"*.

Txupina bota ondoren, berarekin hitz egiten jarraitzeko aukera izan genuen. *"Iaz ez genuen Super Liga irabaztea espero, eta aurtengo garaipena irudikatu ere ezin genuen amets bat bezalakoa izan da. Urte zaila izan dugu, baina Estatuko talderik onena garela erakutsi dugu"*, azaldu zigun.



Hainbat jai Txorierrin udan

Abuztua eta iraila bitartean jaietz gozatzeko aukera izango dugu Txorierriko hainbat herri eta auzotan: Sandoni eta San Bartolome Zamudion, San Roke eta Santa Kurtze Sondikan, San Esteban Derion... Aikor! aldizkaria itxi ordurako, tamalez ez dugu jai egitarau guztiak lortzerik izan. Hala ere, haiegariko batzuen berri emango dizuegu ondoren.

Larrondoko jaiak

Abuztuak 27, barikua

20:00etan Txupinazoa, kalejira eta pregoia.

20:30ean Ikurrinaren jazoera.

21:00etan Tortilla lehiaketa.

21:30ean Sardina jana.

23:30ean Kontzertua, Zapozain taldearekin. Erromeria, Amaiur taldearekin.

Abuztuak 28, zapatua

12:00etan Kalejira, auzoko soinu txistulariekin.

13:00etan Poteoa, auzoko taberna eta txosnetan.

14:30ean Herri bazkaria, Soinulariek girotuta. Ostean, mus, briska eta tute txapelketak.

21:00etan Saiheski jana.

22:30ean Auzoko moxorro festa.

23:30ean Erromeria, Cristal taldearekin.

01:30ean Miss-mister txapelketa.

Abuztuak 29, domeka

10:30ean Kalejira, auzoko soinu txistulariekin.

11:00etan Meza santua auzoko hildako guztien oroimenez, eta ohorezko aurrekua.

12:00etan Akordeoi erakustaldia, Sondikako Agrupación Cultural Pentagramaren eskutik.

13:00etan Omenaldia auzoko nagusiei, Kultur Etxean. Luntxa.

14:00etan Auzoko XIII. Piper Txapelketa, lurrezko ontzietan.

18:00etan Futbol partidua.

21:00etan Erromeria, Urgabe taldearekin.

Santimamiko jaiak (Zamudio-Derio)

Abuztuak 17, martitzena

Sukalki Txapelketa.

Umeen arratsaldea.

Azkona taldea.

Herri merienda.

Sardina jana.

Gau pasa, Ene bada! Taldeagaz.

Abuztuak 18, eguaztena

Marmitako txapelketa.

Mus tximistaren txapelketa.

Sokamuturra.

Erromeria, Indarra taldeagaz.

Tortilla txapelketa.

Gau pasa, Aizkorri taldeagaz.

2003an jaietako umeek eskolan tokia izateko sinadura bilketa Derion

Guraso batek Aikor! aldizkariari adierazi dioenez, aurtun urte biko 8 ume lekuri gabe gelditu dira Derioko eskolan, eta kezkatuta daude datorren urtean kopuru hori ez ote den handituko. Horregatik, eskolaren ordezkariekin eta herriko alkatearekin batzartu dira eta 2003an jaietako umeen gurasoei sinadurak biltzeari ekin diote. Dagoeneko 33 lagunek sinatu dute eskaria. Sinadurak Hezkuntzako Ordezkaritzara eraman nahi dituzte, ume guztiek urte biko gelan lekua izatea eskatzeko. Guraso honek Aikor! aldizkariari azaldukoaren arabera, bali-teke irailean Ordezkaritzarekin ere batzartzea.

Ikastaroak Zamudion eta Lezaman

Urrian, 2004-2005 ikasturtea hasiko da, eta aisialdia ondo aprobetxatzeko hainbat ikastaro antolatu dituzte Zamudio eta Lezamako Udalek: esku lanak, zur-lanketa, aerobika, joga, saloi dantzak, sukaldaritza, tai ji, defentsa pertsonala... Ikastaro hauetan izena emateko epea irailaren 20ra artekoa izango da. Dena dela, informazio gehiago eskuratzeko Lezamako liburutegitik edo Zamudioko Udaletxetik pasa zaitezke.

Amaia Olabarrieta lezamarra, Athleticen fitxaketa berria



Lezamako Amaia Olabarrietak urte bateko kontratua sinatu zuen ekainean Athleticen nesken taldearekin. Gazteak adierazi digun bezala, *"oso pozik nago, hala ere, ez nuen espero, Euskal Herrian oso futbol jokalaria onak baitau-de, eta ni hartzea sorpresa handia izan da"*. Amaiak Erreginaren Kopa txapelketan egin zuen debuta Athleticen. *"Ez nuen partiduan jokatzeke itxaropenik, baina bukatzeke 10 minutu faltatzen zirenean atera ninduen natsaileak. Hasieran oso urduri banangoen ere, zelaia zapaldu bezain laster lasaitu nintzen. Pena irabazi ez izana!"*, esan digu. Beste alde batetik, zelaian adore guztia jartzeaz gain, taldean ahalik eta denborarik gehien egiten ahaleginduko dela azaldu digu erdilariek. *"Zaila izango da zelaian lekua izatea, jokalaria guztiek oso maila ona dutelako, baina ahalik eta ondoen jokatzeko saiaturko naiz. Uztan badi-date, Athleticen betiko egotea gustatuko litzai-dake"*, aipatu digu. Lezamako neskak lau urte eman ditu Bizkerre futbol taldean. Era berean, Bizkaiko eta Euskadiko selekzioekin ere jokatu du.

Gazte Eguna Larrabetzun

Urtero lez, Gazte Eguna ospatuko da Larrabetzun uztailaren 31n, Hori Baik antolatuta. Bide honetan, aurten jaialdiaren 20. edizioa beteko dela aipatzekoa da. Egun osoan hitzaldiak, antzerkia, herri bazkaria eta gazteen arteko olinpiadak izango dira, besteak beste. Gainera, Kuraia, The Starlites eta Parabelum taldeek kontzertua emango dute. *“Prestaketekin aspaldian hasi baginen ere, azken egun hauetan pilatzen dira lan handienak: kartelak jarri, txandak banatu, txosnak jarri... Hala ere, badakigu honek guztiak merezi duela, eta gogo biziz egiten dugu”,* azaldu digute Hori Baikok. Halaber, aurtengo Gazte Eguna gaur egun gaztetxeak Euskal Herri osoan jasaten ari diren erasoak salatzekeo garrasia izango dela azpimarratu dute.

Beste alde batetik, eta aurreko aldizkarietan azaldu genuen bezala, etxea eraberritzeko lanetan dabilta Hori Bai gaztetxeak. Teilatua konponduta, beste behar batzuei ekin behar izan diete, eta horretarako Bizkaiko beste gaztetxeetako partaideen laguntza izan dute uztailaren 7, 8 eta 9an. *“Beste herrietako gazteen erantzuna eta inplikazioa itzela izan zen, eta hiru egunotan lan handia egiteaz gain gure arteko harremanak ere bikainak izan ziren”,* adierazi digute. Auzolanari amaiera emateko, gaztetxearen aldeko manifestazioa egin eta ondoren afaria izan zuten lanean jardun zuten guztiekin uztailaren 9an.



Brontzezko bustoa jarriko da Larrakoetxen Aitor Irazolaren omenez

Abuztuaren 14an, Loiu Udalak eta herritarrek omenaldia egingo diote Aitor Irazolari Larrakoetxen. Gazte hori kultura zinegotzia zen, eta iaz hil zen, auzo horretako jaietarako ipinitako txosna bat desmuntatzen ari zela. Jesus Lizaso eskultoreak brontzezko busto bat egin du Aitorren omenez, eta hura bertan ipiniko da aipatutako egun horretan. Eguerdiko 12:30etan, aurrekoa dantzatu eta lore eskaintza egingo zaio.

Lagunek Aikor! aldizkariari adierazi diotenez, Aitor abertzale peto-petoa zen. Sabin Etxean lan egiten zuen eta arazo sozialekiko sentiberatasun handia izaten zuen. Gainera, Euskal Laguntza gobernuz kanpoko erakunde (GKE) presidente lanetan ziharduen eta Behar Bidasoa GKEko partaide ere bazen.

Lan handia egin zuen Loiu herria ekintza kulturetan parte hartzea animatzen, eta orain lau urtetik hona Larrakoetxen abuztuaren 14an ospatzen den Erromes Eguna ere berak bultzatu zuen. Aurten ere jaia izango da bertan, eta omenaldiaren barruan hainbat ekintza antolatu ditu jai batzordeak. Egun horretan, goizeko 11,30etan meza egongo da San Pedro elizan, eta herri bazkaria egingo dute arrastiko 2,30etan. Ostean, ume jolasak eta iluntzeko 8etan saiheski erreia izango dute indarrak berritzeko. Egun osoan, puzgarriak eta trikitixa egongo dira, eta gaueko 10etatik aurrera, berriz, disko-festa. Azkenik, Begoñako basilikara abiatuko dira goizaldeko 2etan.

Txorierritik Valentziara

Urriaren 9tik 12ra bitartean, Valentziara bidaia antolatu dute Sondika, Loiu, Zamudio, Lezama eta Larrabetzuko Udalek. Bertan, Dinopolis, Valentziako Arte eta Zientzia museoa eta Terra Mitica bisitatuko dira, besteak beste. Interesatuak irailaren 13tik 16ra arte eman beharko dute izena. Argibide gehiago udal-txeetan.

Oxangoiti, 10 urte eta aurrera

Hamar urte bete dira, 30 lezamar abentura erakargarri baten murgildu ziranetik. Gune bat behar zan jende ezkertiar eta abertzalea batzeko, eta gune horri Oxangoiti izena jarri eutsoen, halaxe deitzen zalako Lezamako lehen leinua, familia.

Oxangoiti: lasaitasun gune, kultur sortzaile, herrilan pizgarri, abertzaleen topaleku. Asmo horregaz hasi ziran lehen pausoak emoten, eta neurri handi batean lortu dala esan behar da, nahiz eta Madrilgo gobernua, Garzonen bidez, jo eta ke ibili herrikoak itxi guran. Antza denez, ez jakez gustatzen antolatzen diran kultur ekitaldiak, erakusketak, bertso afariak, kantaldiak eta abar.

Oxangoitiren 10. urteurrena dala eta, hainbat ekitaldi burutu dira maia-

tzetik uztailera bitartean. Honeek urteetan egindako ekintza kulturalen erakuspena lirateke: margo erakusketak, Sahara herriaren maratolari buruzko dokumentala eta argazkiak, Ekidazu abesbatzaren kantaldia, artelan erakusketa, mendi urteera... Ganera, uztailaren 3an Egun Nagusia ospatu, eta ikurrinari agurra, hitzalditxoak, bertsoak eta opariak izan ziran Oxangoitin, baita bazkari-merienda-afaria be. Beste 10 urterako indarbarriturik urten ei dau jendeak.

Azkenik, eta Oxangoitiarrek azaldu deuskuen lez, Lezamara datozen txorierritar guztiak ondo hartuko dabez bertan.

Testua: Jabi Agirre



2004ko San Martin Jaietako Kartel Lehiaketa Zamudion

Zamudioko Udalak 2004ko San Martin Jaietako Kartel Lehiaketa antolatu du. Nahi duten guztiek hartu ahal izango dute parte lehiaketa honetan, baina egile bakoitzak, gehienez ere, lan bi aurkeztu ahal izango ditu. Kartelaren gaia, teknika eta kolorea libreak izango dira. Tamainak 45 x 60 cm-koa izan beharko du eta euskarri zurrunean finkatuta aurkeztu beharko da. Irabazleak 300 euro eskuratuko ditu eta, Epaimahaiak egoki baderitzo, sari berezia ere emango du. Lanak 2004ko irailaren 24ko arrastiko ordu bi eta erdiak baino lehenago aurkeztu behar dira, dela postaz bidalita dela Udaletxera bertara ekarrita. Beste alde batetik, kartelak Zamudio dorrean jarriko dira ikusgai urriaren 30etik azaroaren 19ra arte. Argibide gehiago Udaletxean.

Umeengan irakurtzeko zaletasuna pizteko hitzaldiak Zamudion

Irailaren 9, 20 eta 23an, Oti 7 urtera bitarteko umeengan irakurtzeko zaletasuna pizteko hitzaldiak izango dira Zamudioko liburutegian, arrastiko 5,30etan. Hitzaldiak Juan Carlos Alonso psikologoak emango ditu, eta gurasoei zein hezitzaileei zuzenduta dago. Interesatuta daudenak liburutegitik pasa daitezke izena emateko. Bertan argibide gehiago emango dira.

Athleticek 'Sorbide' bat irekiko du Txorierrin

'Sorbidea' Athleticen kirol egitura bat da, eskualde bakoitzeko oinarritzko futbola kontrolatzeko asmoa duena. Athleticen gaur egun Sorbide bi ditu: bata, Durangaldean, eta bestea Enkarterrin. Datorren denboralditik aurrera beste zazpi zentro zabalduko ditu Bizkaian. Haietako bat Txorierrin kokatuko da. Sorbide hauei esker, futbolari gazteek ez dute bidaia luzerik egin beharko prestakuntza jasotzeko.

Osasun zentro berria inauguratu da Loiu

Uztailaren 19an, osasun etxe berria inauguratu zuen Loiu alkateak Aransotegi plazan. Inauguraziora Gabriel Inclán Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburua eta Osakidetza ordezkariek bildu ziren hainbat herritarrekin batera. Aurreskua dantzatu eta zinta ebaki ondoren, luntxa eskaini zen.

Medikuarenera joateko Sondikarainoko joan-etorria egin behar zuten loiuatarrek, asterik bitan; zentro berriarekin, berriz, egunero izango dute

osasun zerbitzua herrian bertan. Instalazioetan, besteak beste, ondorengo hauek jarri dira: harrera-gela, kontsultategi medikoa, erizaintza kontsultategia eta bilategia. Horrez gainera, balio askoko gela bat ere badago, eta aurrerago pediatriako kontsulta bertan kokatzeko asmoa dauka Udalak.

Osasun zentro berria eraikitzeko 91.989.060 euroko inbertsioa egin dute Loiu Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak.

Iker Amariak pilotariak debuta egin du Frontis enpresarekin Larrabetzun


Profesionaletan Garfe pilota enpresan urte bi eman ostean, Iker Amariak Larrabetzuko aurrelariak Iruñeko Frontis enpresarekin sinatu du urte biko kontratua. Enpresa berriarekin Larrabetzuko pilotalekuan egin zuen debuta, uztailaren 9an. Bertan Amariak eta Errandoenea bikoteak Barberito VI eta Armendariz bikotearen aurka jokatu zuen partidua, eta lezamarak eta beratarak irabazi zuten (22-19).

Larrabetzukoak Aikor! aldizkariari azaldu dionez, enpresaren proposamena gogo handiz onartu du: *“etorkizunari begira zer-nolako proiektua duten eta ekonomia eta kirol arloan hobera egin dudala kontuan hartuta, pozik nago”*.

Debutari dagokionez, pilotaria kontentua dago jendearen erantzunarekin eta, jakina, partiduen emaitzarekin. *“Hasiera baten presiopean jardun nuen: partida handia ipini zidaten, pilotari onekin, eta ez nekien zelan egingo nion aurre. Baina azkenean ondo irten zen”*, esan digu.

Beste alde batetik, datozen bi urte hauetan pilotaz gozatu eta enpresaren barruan pozik egoteko asmoa duela adie-

razi digu, *“izan ere, konpetentzia handia izaten da eta, beti ez da giro onik izaten... Eta, noski, txapelketak ondo prestatu eta papera ona egiten ahaleginduko naiz”*.



Gazte Sortzaile Sariak: Euskal Herriko I. Graffiti Lehiaketa, Topagunearen esku



Gazteen berezko izaera sortzailea eta ekoizpen artistikoa sustatzeko asmoz, I. Gazte Sortzaile Sariak Lehiaketa antolatu du Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak. Hau Graffiti lehiaketa izango da, eta bertan 15 urtetik gorako Euskal Herriko gazte euskaldunek —bakarrik edo taldeka (3 lagun)— parte hartu ahal izango dute. Teknika librea izango da, eta euskara hartuko da gaitzat. Era berean, lanek originalak izan beharko dute, eta graffitiaren marrazki-zirriborroa DIN A3 formatuan eta koloreetan aurkeztuko da. Marrazki-zirriborrotan gaia, diseinua, koloreak eta originaltasuna balioetsiko dira.

Epaimahaiak aukeratu dituen lanak paretan egingo dira urriaren 2an Mendaron (tamaina 6m x 2m ingurukoa), eta lehiakide bakoitzari beharrezkoa duen oinarritzko materiala emango zaio. Aipatzekoa da 1.200 euroko lau sari banatuko direla. Gainera, hainbat tailer (graffitiak, Dj, perkusio, break-dancea...), erakustaldi eta kontzertu (hip-hop-a...) egongo dira egun osoan zehar.

Marrazki-zirriborroak uztailaren 30etik aurrera eta irailaren 25a baino lehen aurkeztu behar dira helbide honetan: Topagunea Euskara Elkartearen Federazioa, Arlozabal 8 bis. 1C, 48220 Abadiño/Bizkaia. Lehiaketaren oinarriak edo bestelako informazioa lortzeko 946215116 telefonora deitu edo gazteak@topagunea.com helbide elektronikora idatzi ahal duzue.

Derioko Merkataritza eta Zerbitzuetako I. Gala arrakastatsua izan da

Derioko Udalak aste bat antolatu zuen herria promozionatzeko, eta aste horren barruan, ekainaren 25ean, gala bat egin zuen frontoian. Gala hori izan zen, hain zuzen ere, asteko ekitaldi nagusia, baita arrakastatsua ere: sarrerak salgai jarri eta egun berean agortu ziren. Bertan batutako dirua gobernuz kanpoko erakunde bati eman zitzaion.

Ekitaldia antolatzeko lanetan, Herriko Denden Elkarteko kide askok hartu zuten parte, bai arropa, oinetako eta osagarriak desfilean erakutsiz, bai antolaketa eta apainketa lanetan lagunduz (dekorazioa eginez, modeloak orraztu eta makilatzuz...). Gainera, estetikako langileek gorputz osoko makillajea aurkeztu zuten, eta herriko modelo batek soinean erabili zuen ile-apaintzaileek ile korapiloz eginiko arropa. Modelo profesionalak ez ezik, herriko jendea ere ibili zen galako desfilean parte hartzen, eta ikusleek txalo handiak jo zituzten, adin eta taila guztietako ume, gazte eta helduak agertzen zirenean.

Beste alde batetik, ekitaldiaren aurkezle lanetan Ainhoa Operación Triunfo telebista saioaren irabazlea eta Antxon ibili ziren. Aipatu beharra dago gala euskaraz nahiz gaztelaniaz egin zela eta Galdakaoko abeslariak kanta bi eskaini zituela. Gainera, ekitaldiaren ostean, autografo eta musuak banatzeko prest agertu zen.

Horrez gainera, Derio Maitia sariak banatu ziren lehenengo aldiz, eta herriko taldeek arteragoko egunetan proposatutako ondorengo derioztar hauek saritu ziren: Pedro Roncero, enpresa munduan; Goio Garcia, kultura munduan, Miren Elorriaga, euskara sailean; Kiki Begoña, kirol arloan, eta Angel Serrano, derioztar aipagarrienaren kategorian. Beste alde batetik, Devon's Tavern eta Hamaiketako taberneke sari bana jaso zuten, aste horretan egindako Ostalaritzako Pintxo Txapelketan nagusitu zirelako.

Gala eta sari banaketa urte guztietan egiteko asmoa dago hemendik aurrera. Modu horretan, parte hartzea, herria eta bertoko denda eta zerbitzuak promozionatu nahi dira.

Testua eta argazkiak: Amaia Rementeria



Goian modeloek soinean eraman zuten herriko denden arropak. Behan Ainhoa OTko abeslariak bi abesti eskeini zituen galan.

Ainhoa OTko abeslariaren kontrako protesta

Gala hasi baino lehen, 25 bat lagun pilotalekuaren sarreraren ondoan batu, eta "Kontsumo kulturarik ez, geurea, sortzaile, anitza eta partehartzailea" leloa idatzita zuen pankarta bat zabaldu zuten. Gala joan zirenei paskinak eman zizkieten galaren kontrako arrazoiak azaltzeko. Protestak ordu erdi bat iraun zuen.

Manifestarien ustez, Ainhoa Operación Triunfoko abeslariak Derio promozionatzeko gala aurkeztea ez zen bidezkoa, halako saioetako partehartzaileek "diskoetxe multinazionalen babespean argitaratzen dituztelako diskoak, estilo eskaintza homogeneizatuz eta artista askoren lana bortizki eklipsatuz". Era berean, kultura aurrefabrikatua ez onartzeaz gainera, azaldu zuten ez dutela telebistako azken produktua artistatzat onartzen, "OTren musika monopolioaren kontra jartzen gara, musika eta kultura aniztasuna bulztatuz eta sortuz".

Oreka Tx, musika taldea

“Pertsona biren artean sortzen den erritmoa da txalaparta”

Igor Otxoa eta Harkaitz Martinezen txalaparten erritmoaz goatzeko aukera paregabea izan genuen Loiuko jaietan. Gazte biok Oreka Tx taldea osatzen dute, eta txalaparta instrumentu internazional bihurtu dute, Euskal Herritik munduko hainbat txokotara eramanez. Harkaitz telefonoz harrapatu, eta taldeari buruz egin dugu berba berarekin.



Txalaparta desagertzeaz zegoela eta zuek berreskuratu egin duzuela diote batzuek. Bat zatoz honekin?

Dagokigun neurrian. Goikoetxea eta Zuaznabar familiak 60ko hamarkadan txalaparta berreskuratu, eta beste musikariei jotzen irakatsi zieten, besteak beste, Beltrani eta Artze anaiei. Beraz, instrumentua euren lanari esker dago bizirik, nire ustez. Hortik abiatuta, guk geure ekarpena egin diogu txalapartari, beste instrumentu batzuekin lotuz eta beste musika arlo batera eramanez.

Egurra, harria, metala... Hainbat materialekin esperimentatzen duzue...

Arlo horretan erakarpen inportantea egin dugula esan daiteke. Txalaparta ez da soilik ohol bat eta makila bi; pertsona biren artean sortzen den erritmoa ere bada. Gure iritziz, hau da garrantzitsua, eta horregatik aberasgarriak izan daitezkeen materialekin esperimentatzen dugu, tinbre berriak lortzeko.

Eta Laponian izotzezko txalaparta batekin ausartu zineten. Zelan esperientzia?

Esperientzia ona izan zen. Baina ez ginen soilik txalaparta jotzera joan, denbora luzea eman genuen bertan... Egia esan, material berrien bila ibiltzeaz gain, herrien kultura eta berezitasunak ezagutzeko egiten ditugu geure bidaia guztiak. Tokiko perkusioak edo ohiko instrumentuek lotura berezia izaten dute herri bakoitzeko ohi-tuerkin, eta materialek ere baldintzatzen

dituzte herriak... Ez da kasualitatea, beraz, Euskal Herrian txalaparta jotzea...

Eta izotzezko txalapartari dagokionez?

Ba, harria edo egurra afinatzeko prozesu bati jarraitu behar zaio, eta izotzak zailtasun gehiago ditu: oholak eta makilak egiteko materiala nola landu ikasi behar da, izotza erraz apurtzen da...

Material horietatik guztietatik zein da onena jotzeko?

Duda barik, egurra, eta horretara ohituta gaude, gainera.

Bidaia guztiak aberasgarriak dira zuentzat, baina nola hartzen da txalaparta Euskal Herritik kanpo?

Ikusmin handia sortzen du beti, eta Europako herrietan, batez ere, harrigarri egiten zaie. Eta txalapartarekin batera gure herriak ere jakin-min handia sortzen du, eta hainbat galdera erantzun behar izaten ditugu askotan. Beste alde batetik, Indian harrituta gelditu ziren, europarrok gauza sofistikatuarekin lotzen baikaituzte, eta guk ohiko instrumentu bat jotzea oso arraroa egiten baitzitzaion.

Kepa Junkerarekin hasi zineten 1997an. Zelako bilakaera izan du taldeak urte hauetan?

Keparekin hasi ginenean, ez genuen musikari profesionalki ekiteko asmorik, baina berak mundu honetara bideratu gintuen. Berarekin ikasi eta berarekin batera

egin genuen *Quercus Endorphina* diskoa. Beraz, ametsa baino gehiago, gauzatu den zera da Oreka Tx. Taldeak oso bilakaera aberasgarria izan du urte hauetan, hainbat musikari ezagutzeko aukera izan dugu... Eta gaur egun gauden lekuan bagaude, faktore askorengatik izan da: instrumentuagatik beragatik, geure lanagatik, txalapartaren aldeko egindako apustuagatik...

Zelako harrera izan du Quercus Endorphina diskoak?

Oso ona eta, egia esan, sorpresa handia izan da guretzat. Diskoetxeak asko lagundu digu, eta apustu handia egin du gure alde.

Proiekturik esku artean?

Bidaia horiek guztiek badute zerikusia gure proiektuarekin: grabaketa piloa egin dugu eta abesti batzuek hurrengo diskoa osatuko dute ziur aski. Hala ere, oraindik ez dakigu nola eta noizko izango den hori.

Eta uda?

Hara eta hona ibiliko gara uda honetan. Esate baterako, uztailaren amaieran Portugalera joango gara. Bertan Keparekin egonak gara, baina ez Oreka Tx-ekin, eta lusitaniarrek txalaparta nola hartuko duten ikusteko irrikan gaude.

Testua: Itxaso Marina
Argazkia: TAK produkzioak

Eta zer pentsatzen duzu zuk?

AEK-ko Txepetxa euskaltegiko uda taldea nahiko kezkatuta dabil hainbat gairekin: kirola, musika, garraioak, euskara... Kontu hauei buruz gogoeta egin ondoren, kalera irten dira beste gazteek zer pentsatzen duten jakiteko asmoz. Ondorengo lerrootan hausnarketa horietariko batzuk ekartzen dizkizuegu; besteak hurrengo alean irakurri ahalko dituzue.

Euskara

Gazteok gero eta gutxiago egiten dugu euskaraz, eta Txorierriko herri batzuetan beste batzuetan baino euskara gehiago egiten da. Zergatik? Derioko Gaztelekuko zaindariak gazteak motibatzen euskaraz mintzatzea gustatuko litzaiguke. Izan ere, edozein gazteri euskarari buruz hitz egiten badiozu, eskolarekin erlazionatzen du, lagunekin erdaraz egiten baitugu. Irakasle batek entzuten bazaitu gaztelaniaz eskolan, ez dizu ezer esaten, baina irakasleen gelara joaten bazara, ikusiko dituzu erdaraz mintzaten. Irakasleek guk euskaraz hitz egitea nahi badute, gure aurrean euskaraz egin dezatela, behintzat. Guzti hau aldatu behar dela pentsatzen dugu gazteok, eta arazoa konpontzeko gure inguruan daudenek euskara praktikatzea behar dute. Horrela, euskara ez dakitenek ikasteko aukera izango dute.

Gainera, Derioko irratian euskarazko saio bat jarri beharko lukete gazte gehienok euskaldunak baikara.

Gazteok euskararen aldeko elkarte bat egin behar dugula pentsatzen dugu, baita euskarazko kontzertuak bultzatu ere.

Gure ustez, gazte guztioi oraingo agurrek bezain ondo euskaraz hitz egitea gustatuko litzaiguke nagusitan. Hala ere, nola egingo dugu euskaraz gure inguruan erdaraz hitz egiten bada? Derioko gazteei galdetu diegu zer pentsatzen duten euskarari buruz.

Galdetegia:

Zer pentsatzen duzu euskarari buruz?

Maitane (15 urte): Jendeak erraza dela esaten du, baina gero ez du inork hitz egiten.

Omar (16 urte): Oso ona dela.

Sara (14 urte): Hizkuntza ez galtzeko ahalegin bat egin beharko genuke gazte guztiok.

Lagunekin euskaraz hitz egiten duzu? Zergatik?

M: Ez, ez delako gure gustukoa.

O: Ez, ez delako nire gustukoa.

S: Ez, lagunak ez dutelako euskaraz egiten.

Irratia euskaraz entzuten duzu? ETB ikusten duzu?



M: Ez dut irratirik entzuten, baina telebista euskaraz ikusten dut batzuetan.

O: Irratirik ez, baina ETB ikusten dut.

S: Irratirik ez, eta telebista euskaraz ikusten dut.

Arazorik duzu euskaraz hitz egiteko? Agureei ulertzen diezu euskaraz?

M: Ez dut arazorik, baina agureekin hitz egiten dudanean, ez dut dena ulertzen.

O: Arazoak izaten ditut, eta ulertu ez arren, ez naiz ahalegintzen.

S: Hitz batzuk izan ezik, dena ulertzen dut normalean.

Testua: Patricia eta Maitane

Gazteak

Imajinatu aurtengo udan Derion gertatu behar zarela. Ez duzu diru askorik, baina bai dibertitzeko gogo handia, eta eguraldia ez da aproposa hondartzara edo igerilekutara joateko. Beti bezala, Gaztelekura joaten zara, baina abuztuan itxita dagoela konturatzen zara. Zinemara joateko gogo duzu, hala ere, ez daukazu nahikoa diru trena edo autobusa hartzeko. Orduan Txorierrin zerbait faltatzen dela konturatzen zara. Ez dago zinemarik, eta eguraldi txarra izanez gero, ezta egoteko lekurik ere. Zer eskatu beharko

genuke Txorierririko leku alaiago bihurtzeko, zure ustez?

Galdetegia:

Zer eskatuko zenieke Txorierriko alkateei?

Gazte 1: Graffitiak egiteko hormak, doako futbol zelai eta frontoiak eta teilaturik gabeko igerilekua.

Gazte 2: Jaietan ekitaldi gehiago izatea.

Eguraldi txarra izanez gero, badugu egoteko lekurik gazteok?

G1: Ez.

G2: Ez, eta oso txarto iruditzen zait.

Eman zure iritzia Txorierririko buruz.

G1: Oso ondo dago, baina zine bat egon beharko litzateke.

G2: Ondo dago, baina herri guztietan igerileku onak eduki beharko genituzke denbora hobeto pasatzeko.

Alkatea izango bazina, zer aldatuko zenuke?

G1: Gaztelekuaren ordezkari bat jarriko nuke.

G2: Enparantzan futboleko aritzeko aukera emango nuke.

Testua: Asier, Eneko eta Diego

"Zoroen lana da gurea"

Belatxikieta mendiko bide harritsu eta aldapa-tsu batetik igo, eta han azaldu dira Bitorren ahuntzak, urrun. Deitu, eta berehala hurreratu zaizkigu, ogi txatal bat ahortzeko lehian. Bitorrek 25 urte ditu, eta oso gaztea izan arren, ez du albo batera utzi aitzak txikitan irakatsitako lana. Ahuntzak ez ezik ardiak eta zaldiak ere baditu, Fikan, Zornotzan, Lezaman eta Larrabetzun bananduta. Diman, naturaz inguratuta, lezamar honekin egon gara berriketan.



Arraroa da gazte bat ganaduzaina izatea gaur egun...

Aitagandik datorrit zaletasuna. Etxean betidanik eduki ditugu animaliak, eta, egia esan, behar hau gustatu egiten zait. Gainera, ez daukat beste zaletasunik... Ahuntzak, esaterako, neugatik dauzkagu, aitzak ez zituen ipini gura eta.

Eta biltegi batean ere egiten duzu behar, zelan uztartzen dira lan biak?

Ahal dudan moduan. Beharrean txandaka ibiltzen naiz, eta goizez lan eginez gero, animaliak zaintzen ditut arrastiz, edo alderantziz.

Ahuntzak, ardiak eta zaldiak... Zelan banatzen dituzu egunak eta denbora?

Mendira etortzen naizenean goizeko 6,30etan altxatu, eta eguerdira arte ibiltzen naiz hemendik, animaliak jagoten eta beste zeregin batzuk egiten. Mendira egun birik behin etortzen naiz, eta beste egune-tan zaldi eta ardiekin ibiltzen naiz aitarekin batera. Dena dela, neguan orain baino lan handiagoa ematen dute animaliek. Orduan, kortan edukitzen ditugu eta gauza askotaz arduratu beharra izaten da: kumeak zaindu, jaten eman, azpia garbitu...

Gero...

Animaliak hazi eta okela zaintzen dugu

gero. Orain dela urte batzuk artileak ardi zaharrak baino balio handiagoa zuen; gaur egun, berriz, inork ez du erosi nahi.

Garestiak dira?

Ez. Ahuntzak eta ardiak geureak direnez, geuk hazi eta geuk kentzen ditugu. Beste alde batetik, zaldiak erosten ditugu, baina gero eta merkeagoak izaten dira, ez dagoelako zaldiki eskaerarik. Horregatik, Frantziara esportatzen dugu okela.

Zelango egoeratan zaudete ganaduzainak?

Egoera nahiko gaitza da, ganaduzain gutxi gelditzen garelako, eta are gutxiago nire adinekoak. Gurea zoroen lana da, eta izugarri gustatu behar zaizu, hara eta hona ibiltzeko. Gainera, behar honetan ez dago jaiegunik: animaliak ezin dira bakarrik utzi mendian. Eta oporrak hartzea ezta pentsatu ere!

Diru laguntzei dagokienez, zelan zabil-tzate?

Foru Aldunditik diru laguntza bat jasotzen dugu 30 ardiko. Horren trukean behartuta gaude ardiok hiru urtean edukitzera. Ahuntzetarako ere lortu genezake, baina eurekin ni bakarrik ibiltzen naiz eta ez dakit zer gerta daitekeen urtebete barru... Horregatik ez dut eskatu.

Lan honetatik bizibidea atera daiteke?

Dirua lortzen da, baina ez bizitzeko beste... Pentsa ezazue, beste lan batean ibiltzen naiz... Honetatik bizi izatea gustatuko litzaidakeen? Bai, baina gero eta zailago ikusten dut. Gustatzen zaidalako edukitzen dut ganadua; edukitzeagatik, besterik ez.

Behar honetan ez dagoela jaiegunik aipatu duzu lehen, hala ere, lagunekin irtengo duzu...

Bai, eta gauez irten arren, goiz altxatu beharra izaten da hurrengo egunean. Pasa den domekan goizeko 6,30etan oheratu eta handik ordu bira ardiei ilea kentzen nengoen. Ezin zara ohean geratu, animaliek ez dute barkatzen eta... Beste erremediorik ez daukagu, ba!

Eta zer esaten dizute lagunek?

Lagun bat animatu zen behin. Bost ahuntz erosi eta nirekin etortzen zen mendira... Urte bi pasa ostean -Zuretat! Ni ez naiz berriro bueltatuko!, esan zidan. Gustatu egin behar zaizu, osterantzean... akabo!

Testua eta argazkia: Itxaso Marina

Sondikako gazte bat Boiseko ikastolan andereño

Izaskun Kortazar Errekatxo, 27 urte, Sondikako ahizta hirukoitzetariko bat. Derioko institutuan ikasia, gaur egun AEBko Boise herrian andereño. Posta elektronikoaren bidez egin deusagu elkarrizketa, eta espero dau artikulu hau dala medio Boiseko euskaldunen inguruan zeozer gehiago jakingo dogula eta balioko dauela bertakoakaz harremanak estutzeko. Izaskun bera prest dago eta bere helbide elektronikoa izten dau: izaskunkor@yahoo.com. Berak dinonez, "Boiseko Ikastolaren inguruan edozer jakin gure dauenak idatzi daiala bildur barik, edo kafe bat hartu geinke, EHn nagoenean, udan".

Zer dala eta txorierritar bat Boisen andereño?

Urtarrilean etorri nintzan Boiseko Ikastolako andereño izateko. Aspaldian neukan Ikastolaren barri, eta oso interesgarria iruditzen jatan diasporako umeei euskara irakastea eta hemengo euskaldunak ezagutzea.

Zein da zure lana bertan?

Hemen 3 eta 6 urte bitarteko umeakaz nabil beharrean. Ikastola oso ondo antolatuta dago eta Ikastolen Elkarteko materiala erabiltzen da. Beraz, Euskal Herriarekiko lotura handiagoa da. 19 ume dagoz orain, eta zoragarria da hemengo beharra. Guraso eta umeak oso jatorrak dira eta harremanak estuak dira. Neska bi gagoz umeakaz (Geneva Ayarra eta biok) eta, beste alde batetik, ikastolako burua (Elena Marcerquiaga). Oso polita da ikustea zelan umeen euskera hobetzen dan eta zelan batzuek euskeraz egiten daben berba euren etxean. Halanda guztiz be, askoren kasuan ingelesez egiten da etxean. Familia danak, bat izan ezik, euskaldunen ondorengoak dira. Baina kasu askotan hizkuntza ez da mantendu, pena da.

Zertan ezberdintzen dira horko eta hemengo eskolak?

Nik ez dodaz hemengo eskolak lar ezagutzen. Sei urtegaz hasten dira, umeek kirol piloa egiten dabe, baita nagusiek be. Eskola publikoak ez dauka izen onik. Beraz, ume asko eta asko pribatura joaten



Sondikako neska 3 eta 6 urte bitarteko umeakaz dabil beharrean.

dira. Bestalde, erlijioa EHn baino askoz garrantzitsuagoa da hemen, eguneroko bizitzan dago eta hau da beste arrazoi bat, umeak pribatueta bialduteko. Beste desberdintasun bat da bigarren edo hirugarren hizkuntza ikastea ez dagoela EHn bezain errotuta.

Zelan integratu zara, zelakoa da horko gizarte?

Gizarte amerikarra oso gizarte eskuza-bala da. Ganera, oso alaiak eta irekiak dira. Lehenengotik etxean bezala sentitzen zara. Ni hona etorri baino lehenago Londresen eta Eskozian bizi izan naz eta

askoz be gatzagoa zan integratzea. Boiseran etorri baino lehen, Idahoko Moscow herriko unibertsitatean espainola irakasten ibili nintzan USAC programaren bitartez. Moscown be oso erreza izen zan integratzea.

Boiseko Biotzetik euskal koroan eta Oinkariak euskal dantza taldean nago. Honek, etxean bezala sentiarazoten nau. Horrez ganera, Txantxangorri trikiti eta pandero taldea, mus, briska eta pala txapelketak be badagoz. Euskal merkatua eta Euskal museoa be badagoz.

Ameriketan maila sozialak ez dira EHn bezain nabariak. Maila desberdineko jen-

"Ikastolen Elkarteko materiala erabiltzen dugu Boiseko ikastolan. Beraz, Euskal Herriarekiko lotura handiagoa da"


tea alkartzen da tabernetan eta edonon. Dirudunek ez dabe euren dirua erakusten horrenbeste erropetan eta. Jarrera apala eta bardintasunezko harremanak daukiez. Adinen kontuetan be, edozein tabernatan adin guztietako jentea topatzen dozu eta oso arrunta da adin desbardineko lagunak izatea.

Zer da gehien botatzen dozuna faltan Euskal Herritik?

Nik ez dot EHko gauza lar faltan aurkitzen: batez be, familia eta lagunak. Uda Sondikan egingo dodanez —abuztuaren 3ra arte—, ez da gogorra egiten hemen egotea. Ni poz-pozik nago hemen, eta uste dot erreza dala hemen pozik egotea, beraz ez dot EH horrenbeste faltan aurkitzen. Nire lagun gehienak euskaldunen ondorengoak dira.

Zein da hor euskararen egoera?

Nire ustez egoera ez da oso ona. Ehtik etorritako aitita-amumek euskeraz egiten dabe egunero, baina hizkuntza ez da hurrengo belaunaldietara pasa. Pena handia da, baina nire adineko pertsona euskaldunak eskuko atzamarrakaz kontatu ahal dodaz. Gazteak EHra joaten dira ikastera urtebetez, edo Lazkaoko barnetegira. Honek sekulako ahalegina eta interesa eskatzen dau. Euren diruagaz joan behar izaten dabe. Polita izango zan trukaketa



Urtarrilean ailegatu zan Izaskun Boisera.

bat egotea eta hemengo gazteak EHra joatea urtebete pasatzera euskera ikasteko, eta gazte euskaldunak hona etorri eta ingelesa ikasi eta euskera irakatsi euskal familiako umeei edo nagusiei Euskal Museoa.

Gauza asko dagoz egiteko euskerak bizirik irauteko. Dantza, musika, pilota eta kulturako beste arlo batzuetan askoz be egoera hobean dagoz, nire ustez. Ameriketako talde kulturek ez daukie udalen diru laguntzarik; beraz, dantzariak eta abeslariak eurek ordaindu behar ditue gastuak, euren taldeak bizirik mantentzeko

Zeozero egin ahal da horko eta hemengo euskaldunek hobeto ezagutzeko elkar?

Hemengo euskaldunek behar handia egin dabe euskal kultura mantentzeko, eta penagarria da euren barri gehiago ez edukitea. Euskal Herriko eskolako umeen edo gazteen eta Boisekoen arteko e-mail edo karta trukaketa ona izango zan batzuk

ingelesa eta besteak euskera ikasteko eta EHren barri izateko. Gu orain Iruñeko eskola batez harremanetan jartzen hasia espero dogu eta Boiseko ikastolako umeei grabatutako bideoak, kantak... bialdu eta alderantziz.

Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza jasotzen dogun arren, justu-justu ibiltzen gara. Ez daukagu horrenbeste material, bideoak, ipuinak... Eskertzekoa izango zan eskolaren batek euren ipuin edo bideo batzuk bidaltzea.

Udaro umeen euskal kanpamendua egiten da, eta bertan Ameriketako euskal umeei kantak, dantzak... ikasten dabez. Polita izango zan euskaldun batzuk hona oporretan etorritik gero horretan laguntzea. Aurton, Boise izango da uztailaren azken astean.

*Testua: Jose Angel Mentxaka
Argazkiak: Izaskun Kortazar*

“Bacalaoa da irrintzi zurigorria”



Testua eta argazkiak: Fernando Larrondo

Kantak dinoan legez, 20 urte ez da ezer. Zelan etorri jatzun burura, orain dala 20 urte, irratitik bacalaoa hastea?

Athleticek jokatzen ebazan partiduetako irratitran misinoetan talde zurigorriak sartutako golak bereizteko zeozer topau gurean nenbilen aspalditik, gure irratia ren marka izango zana, eta holan sortu zan, 1984an, bacalaoa.

Ume nintzaneko txitxarroak eta antxoak —gol ikusgarriak eta porteruen hutsegi-

teak izendatzeko ohiko erea— hor egozan, eta hain Bizkaiko zaporea, hain gurea, eukan arrainaren izena lanerako tresnatzat hartu baino ez neban egin.

Harrezkero bacalao franko jausi dira.

Athleticek sartutako beste gol. Bacalaoa partiduetako unerik gorena, zurigorrien gola, adierazoteko, bereizteko jaio zan; oso momentu onean sortu be, azken liga eta kopa txapelketak irabazi zituane ko urteak ziran eta.

Bacalao, bacalao, bacalao,.....! Hoge i urte bete dira irratit-uhinetako sareek gure herrialdean hain preziatua dan arraina harrapatu ebenetik. Bilbo Herri Irratiko zuzendari Fede Merinok asmatutako ideia izan da, ordutik hona, irratit bidezko atletizale gehienek zurigorrien golak ospatzeko erabili izan daben bereizgarria. Txitxarroa eta antxoa modukoak ziran futbolzaleen artean entzun eitekezan ohiko berbak, 80eko hamarkadaren hasi-keren Athleticek ezagutu ebazan urte oparoekaz bat eginik bacalaoa sortu arte. 20. urteurrena atxakia, jatorriz sondikarra dan kazetari deriotarragaz egon gara, bere ibilbide profesionala eta gaur eguneko kazetari- tzaren nondik norakoak berbabide nagusi dirala.

1984ko lehen bacalaotik, buruan daukazu, gutxi gorabehera, zenbat izan diran kantautakoak?

Ez, egia esan ez dakit, baina erraza litzateke kalkulatzea. 1984 urtetik partiduk irratiz emoteari itxi neutsan urtera, 1991n, kantautakoak estadistika ofiziale- tan agertuko dira. 1991n bacalaoak kantetako lekukoa nire lankide Jose Iragorri emon neutsan, eta harrezkero, bera dabil zeregin horretan. Askotan eskatu deustie bacalaoa hasteko egoera eta ospakizun

*“Bizkaiko zaporea,
hain gurea, eukan
arrainaren izena
lanerako tresnatzat
hartu neban”*

ezberdinetan, baina ez dot inoiz egin; bueno, nire seme-alabek eskatu izan deustienean egin izan dot, noz edo noz, eurekaz olgetan ibili nazenean.

Badauka teknika berezirik?

Bai, birika on batzuk eta emozioa, bakailaoaren emozioa sentitzea. Eta praktika, askotan praktikatzea, trabau ez zaite-

*“Emondako lehen
partiduak umetan izan
ziran, izan be jokatu
eta transmitidu egiten
nebazan aldi berean”*

zan. Besterik ez dau eskatzen. Gero berez dator. Nire seme-alabaren batek kantau deiodan eskatzen deustanean, arnasa hartu barik bacalao, bacalao kantetan zenbat denpora egon naitekeen neurtzeko baino ez da izaten, irrintzi bategaz egiten dan moduan.

Badaukazu gogoan irratiz emon zenduan lehenengo partidua?

Bai, Athleticek antolatzen eban denboraldiaurreko udako txapelketan, 1980 urtean. Uste dot Pragako Bohemians taldearen aurka izan zala, penaltiak jaurtizko estilo berezia asmatu eban Antonin Panenka futbolari txekiarraren taldea, hain zuzen be. Dana dala, emondako lehen partidua umetan Sondikako Iztartza auzoko eskolan jokaturakoak izan ziran, izan be jokatu eta transmitidu egiten nebazan aldi berean. Seguruenez haurtzaroko ohitura hori izango zan gero-ko lanbidearen hazia, partidua transmititzeko erraztasun horren zergaitia, eta, azken baten, futbolearen gorago ez joatearen arrazoia.

Badago emonaldi gogoangarriren bat, ahaztezinak diran horreetarikoa?


Bai, makina bat. Askok izan dira ahaztezinako momentuak. Esaterako, Iruñean jokatu zan liga txapelketako lehenengo partiduan, kazetarien txokoan nire aita



Soslaia

- Barakaldon jaioa, 1960an
- 1977an egiten du bere lehenengo irratia
- 1982an amaitzen ditu kazetaritza ikasketak
- Bilbo Herri Irratiko zuzendaria izendatzen dabe 1988an
- Sondikatik etorria, egun Derion bizi da
- Ezkondua, bi semealaba daukaz

laguntzaile lanetan euki nebanekoa. Edo 82-83 denboraldian Las Palmas taldearen kontra jokaturako ligako azken partidua, Athleticek txapela jantzi ebanekoa. Bestalde, Athleticek Europarako txartela eskuratu eta gero, Bordeleko Girondins taldeagaz tokau eta handik egindako emonaldia gogoan dot oso. Futbol talde frantziarrak dirutza ikaragarria eskatzen euskun emonaldia egiteagaitik eta ez gengozan horretarako prest. Medikun baten



Bacalao sariak itxuraz aldatu dira

kontsultan konexinoa fijau eta gero, ikusle-
en artean sartu ginan eta emonaldi pirata
arrakastatsua burutu genduan. Talde-lana-
ri esker ezin hobeto urten zan dana.
Aipatzekoa da Frantziako egunkari batek
be honen barri emon ebalu.

Gaur egun balitz, emonaldi ha erraza- goa izango zan, ezta?

Jakina. Gaur eguneko komunikazio
teknologia berriek aukera handiak emo-
ten dabez, baina sasoi hartan emonaldi
bakotxa, lotura bakotxa Turkian,
Polonian edota Portugalen, edonon,
egindako lana zapuztu eikean segurtasun-
ik bako abentura hutsa zan. Parajeago
be holangoak suertatzen jakuzan. Hari
bikotzeko linea mikrofonikoak, baimen
burokratikoak eta eskubi-
deen truke ordaindu beharrekoak
asteroko ogia ziran, asteroko eragozpe-
nak. Dana ondo joaten bazan, danok,
Athletica, entzuleak eta neu prest gen-
gozan partidurako.

Askori gustatuko jakon bizimodu hori eroatea, futbolari esker mundua ezagu- tzen, ezta?

Jente asko, erdi bromatan, maletak
eroateko eskeintzen jatan. Egia esan,
bidaia egitea, Athletica jokatzeko ikustea
eta esperientzia hori entzuleenganatzeko
aukera eukitea zoragarria izan da.

Orduan, zergaitik itxi zeuntsan parti- duak emoteari?

Irratiko zuzendari izendatu ninduen
urte bi lehenago, eta hasieran egunero-
ko kudeaketa lanak eta astero egin
beharreko bidaia batera eroaten ahale-
gindu banintzan be, denporeagaz ezi-
nezkoa egin jatan martxa horretan
jarraitzea. Orduan, atsekabez, zuzendari-
tza lanetan jardutea eta partiduetako
emonaldiak lankidea dan Jose
Iragorriren esku itxitea erabagi neban,
ordurarte Bilbo Herri Irratiak Athleticen
emonaldietan eukan lidergoari eusteko
helburuagaz.



Fede 22 urterekin Athletic taldeagaz egindako bidaia
baten 1982an

Irratiaren osasunaz berbetan hasita, zelan dago zure ustez?

Irratia, orokorrean, ondo dagoela pen-
tsetan dot; hori dinoe lortutako audien-
tzien eta emaitzen kontuek, behinik behin.
Eten barik aldatzen doa sasoi eta bide
berrietara egokitzeko. Gero eta entzule
gehiago dago, eta gero eta irrati gehiago.
Geroak, hurrengo urteetan irratiak izango
dauzan edukiek eta erabiliko dituan tek-
nologiek gero eta zer pentsa handiagoa
emoten deuskue kazetarioi. Ohituretan eta
aisialdian emoten ari diran aldaketekaz
gaur entzule fidelak doguzanak bihar be
izango ete diran, horrek emoten deusku
burukomin gehien.

**Baina Bilbo Herri Irratia, zeuk zuzentzen
dozun radiopopularra, betidanik geure
arteaz ezagutu izan dogun irratia, tradi-
zino handikoa da Bizkaian.**



Gazte: Bakalao sarien banaketa 1988an

“Komunikazioa eta informazioa salgai hutsa da, eta irratietako zuzendaritza nagusiek bezeroak bereganatzea eta aurrekontuak doitzea baino ez daukie buruan”

Bai, holaxe da. Neu jaio nintzan urte berean sortu zan eta Bizkaia begira egin izan dau behar beti, orain dala 44 urte sortu zanetik gaur arte. Bizkaian, Bizkaiko, Bizkaitik eta Bizkaia begira jagokozan arazoak doguz berbabide. Gure leloetariko batek dinoan legez, “katerik bako irratia” gara eta izpiritu horrerik eutsi izan deusagu betidanik, gaur batez be. Hau dala eta, orain 10 urte estatu mailako COPETik banandu ginan, irratikate handien babesik bako aurrera joaterik ezinezkotzat jotzen zanean, askoren eritxiaren kontra eta erabagi ausart bati esker. Denborak gure alde egin dau, zalantza barik.

Esan behar da be, Herri Irratia izan zala euskeraz egindako programazioa mar-txan jarri eban lehenengo irratikate

Bai, 1973 urtean. Hau izan da gure irratikatearen filosofiaren zutabeetariko bat. Diktadura sasoiari hasi ginan euskeraz egindako programak emoten. Gero, hasta-

“Diktadura sasoiari hasi ginan euskeraz egindako programak emoten Herri Irratian”



Mikrofono aurreko jarduna da Federi gehien gustetan jakona

pen apal horreetatik gorputz sendoago bat osotuten joan zan, denboraz Bizkaia Irratia jaio zalarik. Herri Irratitik sortutakoa dogu Bizkaia Irratia, gure lurraldean euskeraz sortu eta landutako programazioa eskeini eban lehenengo irratikate. Lehenengoa eta, gaur egun, bakarra be. Zoritxarrez.

Amaitzen goaz. Oso gazte hasi zinan irratia munduan beharrean. Aldaketa handiak igarriko zenduzan hasi zinane-tik hona, ezta?

17 urte gazte hasi nintzan beharrean. Lana eta ikastea buztartzen nebazan, goizetan unibertsidadera eta arratsaldeetan irratira. Ikusi dodan aldaketa itzela da. Irratiko lana, gaur, guztiz digitalizata doa, erraminta informatiko barik ezin dozu ezer be egin. Aspaldikoak dira giradiskoak, kar-

tutxeroak eta magnetofonoak. Lan egiteko ereak be nabarmen aldatu dira. Lehengo irratian inozentzia eta idealismo dosi handiagoak egozan, emozino haundiagoagaz lan egiten zan, ez bakarrik irratian, kazetaritza esparru orotan baizik.

Gaurko hedabideen munduan kazetaritza zati bat baino ez da, baina dagoaneko ez zati nagusia. Merkatuko legea dogu gaur jaun eta jabe, merkatuko jokoan sendo errotutako kazetaritza da, gizarte mailako ardura eta kezka leku apalago batean dagozala. Komunikazioa eta informazioa salgai hutsa da, negozioa, eta irratietako zuzendaritza nagusiek bezeroak bereganatzea eta aurrekontuak doitzea baino ez daukie buruan.

“Uritarrek parte hartu eta gozatzeko jai egitaraua egin dogu aurten”

Larrabetzuko Andramariak laster izango dira, eta Intxurreta jai batzordeak uritar guztientzako egitaraua prestatu dau aurten, Udalaren laguntzagaz. Abuztuaren 13tik 16ra bitartean eta hilaren 24an, hainbat ekitaldiez gozatzeko aukerea izango da. Herriko jai batzordeak ekitaldi honeen barri eman deus Aikor! aldizkariari.

Aurtengo asmoa?

Ba, aurreko urteetan legez, aurten be Andramariak jai herrikoiak eta partehartzaileak izatea gura dogu. Eta, egia esan, egitaraua ez da egin kanpoko jente asko etorri daiten, ezpada larrabetzuarrek parte hartu eta ondo pasa dagien.

Eta zer daukagu jai egitarau horretan?

Danetarik: pilota partiduak, futbol 7 txapelketa, kontzertuak... Eta Andra Mari egunean denboraren porasuz ohitura bihurtu diran beste ekitaldi batzuk be izango dira: dantzak, asto lasterketa, Balkoitik balkoira bertso emonaldia Unai Iturriaga eta Igor Elortzagaz, antzerkia, erromeria, pintxo dastatzea... Azkeneko hau lehenengo aldiz egin zan iaz, herriko jai batzordeak bultzatuta. Bakotzak bere etxetik ekartzen ditu pintxoak, eta, egia esan, jentea ahalegindu egiten da.

Beste alde batetik, abuztuaren 16a umeen eguna izango da, eta txikientzako hainbat gauza antolatu doguz, urtero legez: kalejira buruhandi, kiliki eta erral-

doiakaz, jokoak, antzezlanak, triatloia... Ganera, jaietan aurreko urteetako jaietako argazkiak egongo dira ikusgai Anguleri jauregian.

Azkenik, abuztuaren 24an San Bartolome eguna ospatuko dogu ermitan. Bertan, bizikleta igoera, paella txapelketa eta betiko ekitaldiak izango dira.

Zeintzuk izaten dira ekitaldirik arrakastatsuenak?

Auzoz auzo, koplaz koplaz ekitaldiak jaiei hasiera eman, eta jendetza handiak parte hartzen du bertan. Horretaz aparte, asto lasterketak hasiera baten arrakasta handia eduki eban, baina urteak pasa eta gero eta arrakastatsuagoa da. Beste alde batetik, Larrabetzun pilota zaletasun handia dago, eta Iker Amaria pilotaria bertokoa danez, aurtengo partidak be ikusmina sortuko dabela uste dogu. Eta Tapia eta Leturia taldearen kontzertua, noski! Ez dakigu zenbat urte egin dituen Larrabetzura urtero etorten, baina kalean giro itzela sortzen dabe. Jotzeaz ganera,

pertsona batek zelan dantzatu erakusten dau, eta benetan ikusgarria da! Dana dala, egitarau barruan betiko gauzak egon arren, guztiak arrakastatsuak izaten dira normalean, eta jendetza handia batzen da ekitaldi guztietara.

Eta jai egitarautik kanpo, koadrilak mozturatu egiten dira Andra Mari egunean, eta karrozak be prestatzen dabez. Hau aspaldiko ohitura dogu, baina denboraren poderioz galdu egin zan, eta orain 5 urte-tik hona berreskuratu egin da.

Nobedaderik aurtengo jaietan?

Ba, plazan egin beharrean Andra Mari kalean izango dira kontzertuak aurten. Ganera, blues kontzertua izango dogu lehenengo aldiz abuztuaren 16an.

Ekitaldi gehienak plazan izango dira...

Bai, eta bertan be txosna ipiniko da. Gero, lehen aitatu dogun legez, kontzertuak kalean izango dira; antzerkia eskolako patioan, triatloia igerilekuan... Eta parranda kantsau arte egingo dogu! Dana

dala, jai egitaraua osatzeko orduan mundu guztia kontuan hartu eta ordutegiak egokitzen saiatu gara.

Zelango giroa dagoen Andra Mari jaietan?

Oso giro ona, sanaa, partehartzaileria... Aurten Bilboko jaiakaz batera izango dira eta ez dakigu zer gertatuko dan, baina aurreko urteetan be jaiak izan dira beste herri batzuetan, eta jentea herrian lotu da. Ganera, askok jaien arabera antolatzen dabez oporrak, hau da, jaien aurretik edo ondoren joaten dira kanpora. Horrek zer edo zer esan gura dau.

Larrabetzuko Emeteriek Goikoeleixalden

Abuztuaren 13tik 16ra bitartean Andramariak urian eta abuztuaren 30etik irailaren 1era bitartean Emeteriek Goikoeleixalden. Jaiak jarraituko dau Larrabetzun, eta Intxurreta jai batzordeak primeran pasatzeko moduko egitaraua osatu du oraingo honetan be.

Abuztuak 30, astelehena

20:00etan Txupinazoa.
21:00etan Odolosteak, txorizoa, sagardoa...
22:00etan Erromeria: Patxi eta Batbiru.

Larrabetzuko Andra Mari jaiak

Abuztuak 31, martitzena

11:30ean Meza Nagusia.
12:30ean Herriko dantzariak.
13:00etan Bertsolariak: Xabier Amuriza eta Etxahun Lekue.
17:00etan Briska Txapelketa.
20:00etan Idi probak.
22:30ean Kantaldia: Erramun Martikorena.
Irailak 1, eguaztena
11:30ean Meza.
16:30ean Barrenetxera Bizikleta Igoera.
17:00etan Mus txapelketa.
17:00etan Umeentzat jokoak eta tailerrak.
18:30ean Antzerkia: Hortzmuga taldearen eskutik.
21:00etan Erromeria: Izotz.



Auzoz auzo, koplaz koplaz

Orain hiru urtetik hona, Auzoz auzo, koplaz koplaz ekitaldiagaz emoten deusie hasiera jaietara larrabetzuarrek, bertako Bertso Eskolak bultzatuta. Astoa eta gurdia hartu, eta auzoz auzo ibiltzen dira Bertso Eskolak prestatutako koplaz batzuk kantatuz. Horrela, urian, auzoetan edo baserrietan gertatutako hainbat istorio eta pasadizo azaltzen dabez koplaz bidez.

Egitaraua

Abuztuak 13, barikua

15:00etan Auzoz auzo koplaz koplaz.

19:30ean Pelota partiduak:

Badiola-Altuna / Ariznabarreta-Armendariz.

Amarika-Errandonea / Alustiza-Arretxe.

Abuztuak 14, zapatua

17:00etan Gaztetxoan pelota partiduak.

18:00etan Futbol-7 txapelketa.

21:00etan Txupinazoa, odoloste jana tabernetan.

22:00etan Erromeria.

23:30ean Ortophonk taldearen kontzertua kalean. Erromeria.

Abuztuak 15, domeka

11:30ean Meza Nagusia.

12:00etan Dantzak.

13:00etan Pintxo dastatzea.

18:00etan Asto lasterketa.

19:00etan Bakoitik balkoira: Unai Iturriaga eta Igor Elortza.

22:00etan Erromeria: Izotz

23:15ean Antzerkia eskolan: Markeliñe taldearen DSO ikuskizuna. Erromeria: Izotz.

Abuztuak 16, astelehena

11:00etan Ondalan taldeagaz kalejira: Erraldoi, Buruhaundi eta Kilikiak.

11:30ean Meza Nagusia.

12:00etan Umeentzat Jolas txokoa Kilimiska taldearekin.

14:30ean Umeentzako .

17:00etan Umeentzako antzerkia: Gorringo taldearen Munduko arrautzik haundiena antzezlan.

18:00etan Triatloia.

20:00etan Blues kontzertua kalean.

22:00etan Erromeria: Tapia eta Leturia.

Abuztuak 24, martitzena (San Bartolome)

11:30ean Meza. Luntxa.

13:30ean Bizikleta Igoera.

14:00etan Paella txapelketa.


17:00etan Briska txapelketa.

Abuztuaren 14, 15 eta 16an Angulerin beste urte batzuetako jaietako argazkien erakusketa egongo da ikusgai.

Ordutegia: Abuztuak 14, 19:00etatik 21:00etara.

Abuztuak 15, 12:30etik 14:30era eta 19:00etatik 21:00etara.

Abuztuak 16, 19:00etatik 21:00etara.



Alaitz Gana, Arianne Barkin, Ibon Zurinaga eta Koldo Peñafiel, Lezamako jai-batzordeko kideak:

“Jai euskaldunak eta parte hartzeko modukoak izango ditugu aurtengoak”



Irailaren 2tik 9ra bitartean Andra Mari jaiak izango dira Lezaman, eta egun honeetan primeran pasatzeko ekintza sorta zabala antolatu dau herriko jai batzordeak, Udalaren laguntasunagaz. Hainbat urteren ostean, jai batzorde barria daukagu aurten, eta jaiak bebarritzen saiatuko dirala ziurtatu deuskue Alaitz, Arianne, Ibon eta Koldok.

Jaietako helburu nagusia...

Pixkanaka-pixkanaka Lezamako jaiak galduz joan dira, eta aurtengo egitaraua-gaz berpizteko asmoa daukagu. Jai batzorde barria osatzeak mesedea egin deusela pentsetan dogu. Ganera, txosnak ipinten dituen alkarteak be parte hartzea lortu dogu, eta jaiak herrikoi eta zabalagoak izango dira, ondorioz. Jentea jaietara etorri eta ondo pasatzea gura dogu.

Beraz, zelango jai egitaraua osatu dozue?

Lehenengo eta behin, aurtengo aurtengo trantsizioko urtea izango dala adierazo behar da. Enpresa baten bitartez egin beharrean, geuk hartu dogu ardura osoa... Eta halako beharretan eskarmentu handirik ez izateaz ganera, ez dogu dana behar bezala prestatzeko denbora askorik eduki. Halan be, ahalik eta ondoen egiten saiatu gara, eta jai batzordeak aurrera eginez gero, jaiak hobetu egingo dira datozen urteei begira.

Bale, azalpena egin ondoren...

Ba, jai euskaldunak eta parte hartzeko

Lezamako Andra Mari jaiak

Irailak 2, eguena. Antolin Deuna (Legina)

12:00etan Meza.

13:00etan Luntxa.

14:00etan Herri bazkaria (dohainik).

15:30ean Mus eta briska txapelketetan izen emotea.

16:00etan Mus eta briska txapelketak.

Irailak 3, barikua

19:00etan Txupinazoa.

22:00etan Kontzertuak: talde gazte bi eta Txapelpunk.

02:00etan Berbena Amaiur taldeagaz.

Irailak 4, zapatua

11:00etan Txistulariak

12:00etan Umeentzako zaldiak Janearen eskutik. Bitartean, pintxo lehiaketa herriko tabernetan.

22:45ean Kontzertuak: Lor, Sei urte, Fjord eta talde sorpresa.

Irailak 5, domeka

11:00etan Txistulariak.

12:00etan Meza.

13:00etan Ekidazu abesbatzaren emanaldia.

14:00etan Triki-poteoa.

15:00etan Herri bazkaria, Zorritzetan Euskera Alkarteak antolatuta.

16:30ean Umeentzako jolasak.

Pilota partidak (ETBren esku gelditzen da ordua zehaztea).

Irailak 7, martitzena

17:00etan Umeentzako jolasak.

19:00etan Joaldunak.

20:00etan Gaiteroak.

Odolosteak herriko tabernetatik.

22:00etan Berbena.

Irailak 8, eguaztena

11:00etan Txistulariak.

12:00etan Meza.

19:00etan Gaiteroak.

21:00etan Play Back lehiaketa.

04:00etan Jaien amaiera klubean. Chill Out Session.

Irailak 9, eguena

12:00etan Meza.

13:00etan Jubilatuentzako luntxa, Jubilatuen etxean.

modukoak izango dira. Gaueko kontzertuez ganera, San Antolin egunean herri bazkariagaz hasi, eta hainbat ekitaldi izango doguz aste osoan: txistulariak, umeentzako jolasak, pintxo txapelketa, triki-poteoa, kalejira, txistulariak, gaiteroak... Pilota partidak be egongo dira, baina ETBK dauka horren ardura, eta oraindino ezin dogu zehaztu noiz eta zein ordutan izango diran.

Astelehenean atsedena hartu, eta martitzenean jarraituko dogu jaiakaz. Hau egunik onena izaten da bertoko jentearentzat, eta tabernarik taberna odolosteak dastatuko doguz, joaldunakaz eta gaiteroakaz kalejira egingo da... Umeentzat be jai eguna izango da, eta betiko jokoez gozatzeko aukerea euki-kobe.

Beste alde batetik, irailaren 8an, Andra Mari egunean, ohiko ekitaldiak ez ezik parranda handia be izango dogu, baina norberak antolatuta, eta egueneko ekintzak jubilatuei zuzenduta egongo dira.

Zein izan daiteke ekintzarik erakargarriena, zuen ustez?

Duda barik, kontzertuak jente asko erakartzen dabe barikuan eta zapatuan. Halan be, gutariko asko beharrean ibiliko gara –beti bezala– eta ezin izango dogu musika taldeakaz gozatu. Horregaitik, domekako herri bazkaria nabarmenduko geunke, izan be, herritar askok hartzen dogu parte bertan, eta giro itzela sortzen da beti.

Zelan antolatuko da jai guinea?

Azken urteetan egin dan moduan: kontzertuetarako eszenatokia, plazan; 5 txosna, udaletxearen atzeko aldean: jai batzordekoa, Gaztelekuan, eta gero herriko tabernak. Aurten txosna guneari indar

handiagoa emon gura deusagu, jaiak aurrera egiteko ezinbestekoa baita. Horrela, bada, jai batzordeko kide eta herriko alkarteetako partaideen artean egingo dira txandak. Dana dala, lezamarraz berba egin gura dogu, ea prest dagozen datozen urteetan parte hartzea handiagoa izateko eta lehen egiten ziran hainbat ekitaldi berreskuratzeko. Ganera baleiteke jaiak betiko irudikatuko dituen pertsonaia sortzea be.

Musikari jagokonez, txosnetan danetarik jarriko bada be, musika euskalduna bultzatuko dogu, batez be. Eta zein ordutara arte? Ba, kontzertuak bostak aldera amaituko dira eta gero gerokoak. Baina normalean ez da arazorik egoten musika-gaitik.

Zelango giroa izaten da Lezamako jaietan?

Kanpoko jentea Lezamara hurbiltzen da normalean, eta aurten be horrela izatea espero dogu. Hala eta guztiz be, jaiak bertokoentzat egiten doguz, eta ez dogu gehiegi kezkatu behar beste herrietako jentea badator edo ez. Lan egin beharko dogu, baina jenteak primeran pasatzen badau eta gauzak ondo urteten badabe, gu pozik.

Animatu jentea Lezamako jaietara etorteko.

Berez animatu behar dira, izan be, gaur egun nahikoa presionatuta gagoz, jentea jaietara be behartzeko. Eta hori bai, animatzen diren guztiak ahalik eta ondoen egoten ahalegin-duko gara gu. Osterantzean, bai animatu gura doguz lezamar guztiak jai batzordean parte hartzeko, anitza izan behar dauela pentsetan dogulako. Aurten 20 bat lagun gagoz, eta datorren urterako 20 bat lagun gehiago beharko doguz!

Musika talde barrien aldeko apustua

Aurten, inguruko herrietako musika talde gazteei zuzenean jotzeko aukerea emongo jake Lezamako Andra Mari jaietan. “Taldea honeen sorrerari laguntzeko asmoa daukagu. Ganera, ondo urtenez gero, erreferente bihur daiteke Txorierri mailan”, azaldu deuskue jai batzordeko kideek.

Horrela, bada, Txapelpunk taldeagaz batera, beste talde bik joko dabe irailaren 3an, barikuan; zapatuan, barriz, Lor, Sei Urte eta Fjord-en kontzertuen ostean, talde sorpresa bat izango da.

Jai batzordea banda batzuekin berbetan dabil oraindik. Halan be, Alerta taldeak barikuan kontzertua emongo dauela aurreratu deuskue.

Alerta, metal Durangaldetik

Alerta musika taldea orain dala zortzi urte sortu zan, Alerta Roja eta Bait taldeen bat-egitearen ondorioz. Durango eta Abadiñoko 6 gaztek –Jabi ahotsa; Sesi gitarra-jolea; Beni gitarra-jolea eta koroak; Txitxi baxu-jolea; Alain bateria eta Guti Dj– banda osatu, eta metal musika jorratzen dabe. Aitatu beharra dago Machine Head, Korn eta Hamlet taldeek eragina dabela eurakan.

Zortzi urteotan, 50 bat kontzertu eman dabez Bizkai eta Gipuzkoa aldean, beste talde ezagunagoakaz batera: El corazón del sapo, Narco, Eraso, Sei Urte eta Lor, euren artean. Ganera, orain 3 urte Durangaldeko musika taldeen lehiaketa irabazi, eta Soma-TV maketa grabatu eben. Eta laster (irailerako edo urrirako) maketa barria kaleratzeko asmoa dabela azaldu deuskue.

Alerta taldeak 45 minutuko kontzertua emongo dau Lezamako jaietan, eta musika ez ezik ikuskizun ederra be eskainiko dabela jakinarazi deuskue. Adi egon, beraz!

Txapeldunak



Uztailaren 3an Herriarteko Txapelketaren finala jokatu zen Zeanuriko pilotalekuan. Lezamako Udalak autobusa antolatu zuen, herritarrek herriko taldea animatzera joan daitezten. Azkenean, 150 bat lezamar joan ziren eta pilotalekuko harmailetan giro itzela sortu zuten. Lezamako pilotariek ez zieten hutsik egin zaleei: Txapelketa irabazi zuen, finala Usansoloko taldearen kontra jokatuta (2-1). Lezama herri txikia da, bai, baina pilota eskola sortu, eta harrezkero 53 urte daramatzate lanean, pilotari onak heziz eta kirol honetarako zaletasuna handituz. Aikor! aldizkariak zorionak eman dizkie Jaime Uriarte presidenteari eta Juan Mari Dañobeitieri.

Bost finaletara ailegatu, eta hiru txapel lortu...

Bai, aurtengo garaipenaz gainera beste bitan ere irabazi genuen: 1997an, Elorrion, Ortuellaren kontra, eta 1999an, Barakaldon, Markinaren kontra. 1995ean eta 1998an, berriz, txapeldunorde gelditu ginen, kasu bietan finala Gernikaren aurka jokatuta.

Zelan ibili dira mutilak aurtengo txapelketan? Ondo, ezta?

Hiru kategoriek hartzen dute parte Herriarteko Txapelketan: kadeteak, gazteak eta helduak. Hiru kategoria horietatik gutxienez bitan irabazi behar da txapela lortzeko. Kadete mailan, Peio Mendiguren

eta Iñigo Aurtenetxe lezamarrek nagusitu ziren (22-7) eta helduen kategorian, berriz, Asier Bengoetxea eta Txaber Zabala lezamarrek irabazi zuten (22-8). Gazte mailan, oster, Edorta Bilbao eta Felix Iturrioz lezamarrek galdu egin zuten (22-3).

Zein izan zen txapelketako kanporaketarik gogorrena?

Berrizen aurka jokatu genuena. Kadeteek irabazi zuten, baina beldur ginen helduen mailan... Eta Gernikaren kontrako partidak ere gogorrak izan arren, han ere aurrera egitea lortu genuen. Finalari begira, ez genekien zelan jokatu zuten kadeteek presiopean, baina oso ondo moldatu

ziren. Hala ere, bagenekien gazteek galdu egingo zutena, eta Usansolok baino bikote hobearekin genuen nagusietan, izan ere, Zabala eta Bengoetxea Bizkaiko onenetarikoak dira.

“Txapelketako kanporaketarik gogorrena Berrizen aurka jokatu genuena izan zen. Kadeteek irabazi zuten, baina beldur ginen helduen mailan”

“Gurasoek futbolari eta pilotari indar bera eman beharko diete, gero umeek aukeratzeko”

Beste alde batetik, Herriartekoa txapelketarik garrantzitsuena da, eta jendeak gehien jarraitzen diona, gainera. Frontoiak zaleez gainezka izan ziren finalurrekoetan... Eta pilotariak ere motibaziorik handiena izaten dute txapelketa honetan.

Lehen aipatu dituzuen mutiletatik bada inor pilota munduan etorkizuna duenik?

Kadeteek oso etorkizun ona dute, nire ustez (Jaime Uriarte). Katgoria honetan egoteko, mutilek 15 urte izan behar dituzte, eta nahiz gurek 14 urte eduki, bertan sartu ditugu onak direla pentsatzen dugulako. Gaztetxoagoak direnez, beldurrez ibili gara txapelketan, baina erraz irabazi dituzte partida guztiak.

Profesionaletara ailegatzeko modukoak?

Tira, profesionaletara 18 urterekin ailegatzeko dira, eta bitartean entrenamendu asko egin behar dira; eskuetatik ondo ibiltzeaz gainera gimnasia joan beharra izaten da...

ten da... Eta askok pilotan aritzeari uzten diote futbolagatik edo ikasketengatik. Gainera, 18 urterekin gailendu edo lotu egiten dira... Peioak eta lñigok adin gaitza daukate, baina, gutxienez, bietariko bat profesionaletara ailegatuko dela uste dut. Etorkizun itzela dute.

Zer eskaintzen zaie gaztetxoei pilota eskolan?

Lezaman astean bitan alde teknikoa lantzeaz gainera, Federazioko ordezkariekin hainbat gauza ikasteko aukera izaten dute, eta prestatzaile fisiko batekin ibiltzen dira Zamudioko kiroldegian. Hala ere, gero norberak balioa eduki behar du... eta suertea eta laguntasuna ere, noski. Bakarkako lana egiten da pilotan, eta sakrifizio handia eskatzen du.

Eskolak aurrera egiteko laguntzarik?

Udaletik jasotzen dugu, batez ere, eta oso pozik gaudela esan beharra dago. Horretaz aparte, publizitate eta bazkideen ekarpenen bidez, diru apur bat ere lortzen dugu. Momentu honetan 250 sozio gara eskolan.

Eta frontoi berria noizko?

Proiektua eta martxan daude, eta eraikitze lanak datorren urtean hasteko itxaropena dugu. Frontoi berriak garbitasuna eta erosotasuna ekarriko

dizkigu. Gauzarik inportanteena herriaren erdigunean egotea da; osterantzean, kaltetuta geratuko ginateke.

Zelan mantendu eta bultzatu Lezama dauzkan maila eta zaletasuna?

Umeekin ezinbestekotzat jotzen dugu txikitatik lan egitea, eta, horregatik, eskolaz kanpoko pilota saioak antolatzen gabiltza guraso elkartearekin batera. Umeak motibatzea da gako.

Pilotak gero eta egokiagoak dira umeentzat...

Bai, umeek minik ez hartzeko moduko pilotak egiten dira gaur egun: pilota goxoekin hasten dira, jotzean ez dutelako sufritu egin behar, disfrutatu baino. Eskua lesionatu edo min hartuz gero, jokatzeari uzten diote normalean.

Eta zenbat pilotari behar da harrobia mantentzeko?

Gutxienez, 12 umetxo, eta katgoria guztiak kontuan hartuta, 50 bat pilotari. Txapelketa hauek irabazteak zaletasuna handitu egin du herrian.

Bukatzeko, zer eskatzen diozue herriari?

Gurasoek pilotan futbolekin beste anima ditzatela umeak. Hau da, kirol biei indar bera eman diezaietela, gero umeek aukeratzeko.

Osteopatia: giharretako minen aurkako terapia

Giharretako mina sarri gertatzen zaigun kontua da. Kirolean zein lanean egindako esfortzuek edo hartutako kolpeek eta, denboraren poderioz, gorputzaren jarrera desegokiek giharretako hantura (inflamazioa) sortzen dute, eta gorputzaren defentsa-mekanismo honek min –askotan handia- ematen digu. Honen aurrean antiinflamatorioak hartzea edota osteopatia erabiltzea dugu konponbide. Luis Mari Asensio osteopatak Aikor!en irakurleoi azaldu digu terapia honen funtsa.

Zer da osteopatia?

Eskuz egindako terapia globala da, eta artikulazio, giltzadura eta giharrei galdutako malgutasuna, zalutasuna edo elastikotasuna bueltatzen diegu, gorputzak bere oreka berreskura dezan. Horretarako, lehenengo eta behin, diagnostiko ona egin behar da eta giharreko tentsioa kendu ondoren, kaltetutako gunea tratatzen dugu.

Beraz, lesio baten ostean edo bizkarreko minaren aurrean, zer egin behar dugu?

Jendeak antiinflamatorioak hartzen ditu, baina hauen eragina, kasu askotan, mugatua da eta guk osteopatia gomendatzen dugu, alde batetik eraginkorra delako eta, bestetik, metodo erabat naturala delako. Guk bi edo saiotan arazoa konpontzen dugu, eta pazienteari beharrezko aholkuak ematen dizkiogu gorputzaren malgutasuna berreskura eta jagon dezan.

Min ematen al du terapia honek?


Inola ere ez. Batzuek pentsatzen dute min egiten dela, agian zenbait masajisten teknikengatik, baina osteopatiaren arau nagusietako bat min ez egitea da. Zeren eta min egiten baduzu gorputzeko giharrek uzkuritu egiten baitira, defentsa moduan, eta orduan egin beharreko lana oztopatu egiten du. Beraz, ez da inolako beldurrik izan behar, minik gabeko terapia da eta.

Etxeko erremedioek laguntzen dute?

Hantura edo inflamazioa badago izotza jarri behar da edota antiinflamatorioak hartu; kizkurdura edo uzkurdura –kontrakzioa- badago, berriz, beroa jartzea egokia da.

Zer gomendatzen duzu prebentzio moduan?

Kontuan hartuta lesio eta min gehienak malgutasun faltagatik ematen direla, esparru hau landu behar dugu, alegia neurritz



egindako kirola eta luzapenak egitea prebentziorik onena dugu. Ildo honetan esan beharra dago gehiegizko pisua ere ez dela batere ona, sabel inguruan pilatutako kiloei presio larregi sortzen dute eta gerrialdeko giharrek laburtu egiten dira, lunbalgiak sortuz.

Noizko osteopatia zerbitzu publikoaren barruan?

Beste herrialde batzuetan, Alemanian adibidez, osteopatia onartuta dago siste-

ma publikoaren barruan, horregatik gure elkarte ere ahaleginetan dabil onartua izan dadin. Zalantza barik, terapia natural hau onartzea itzel ona izango litzateke populazio osoarentzat.

Amaitzeko, azken gomendioak...

Kirola neurritz egitea, malgutasuna ez galtzeko luzapenak egitea eta, azkenik, min hartu baino lehen osteopatarenera joatea. Izan ere lehen aipatu dugunez terapia hau prebentiboa da eta, beraz, nire

Wireless


Testua: Alberto Legarreta

Wireless teknologia mota bat da, irratihinen bitartez eginiko datu transferentzietan oinarritzen dana. Orokorrean esan leike haririk gabeko lotura dala. Teknologia horren barruan, WAP (Wireless Application Protocol) eta WIFI (Wireless-Fidelity) sartu leitekez. Eurak dira garrantzitsuenak eta gaur egun modan dagoenak.

Orain ospe handia dauke, baina merkatura atera ziranean, zalantzan jarri ziran; Halanda guzti be, gaur egun egia da, enkriptazio eta beste teknika batzuen bitartez, aukera handia dagoela wireless konekzioa segurua izateko.

WAP (Wireless Application Protocol)

Haririk Gabeko Aplikazio Protokoloa.



Sakelako telefonotik, agenda elektronikotik edo haririk gabeko bestelako gailu batetik Interneten sartu, eta horko zerbitzuak eta informazioa erabili edo eskuratzeko diseinatutako protokoloa da.

Wifi (Wireless-Fidelity).

Haririk gabeko Ethernet sarea. IEEE erakundeak sortutako 802.11b estandarrean oinarrituta dagoen haririk gabeko sare lokala. 2,4 GHz-eko maiztasun-banda zabaldu, eta 11 Mbps-ko abiadura eskaintzen dau.

Adibidea: Etxean ADSL edo CableModem ipini, eta WIFI ekipo bat erosten badozu (120 eurotan erosi leike), ordenagailu eramangarri batez (esku-ko ordenagailua) etxeko edozein lekuta-

tik konektatu zein tekez. Konexino mota hau ordenagailu eramangarrientzat izaten da normalean, baina ordenagailuak horretarako ahalmena be euki behar dau.

Konexino mota hau erabiltea erosoagoa da, nahiz eta indar gitxiago euki. Gero eta leku publiko gehiagotan izaten da erabilteko aukera. Ordenagailu eramangarri batez edozein lekutatik konektatu leiteke Internetera.

Bidali zure iradokizun edo zalantzak
hurrengo helbide elektronikora:
traktor@euskalnet.net



Arrizurigane mendira itzulia

Eguraldia lagun daukagula aprobetxatuz, oporretan egiteko ibilbide bat proposatzen dizuegu hurrengo lerrootan.

Larrabetzuko enparantzatik abiatzen gara Arrizurigane mendira. Igoera Maruti auzotik, eta jaitsiera Sarrikola auzotik egingo ditugu.

Plazatik irteten gara, Zubitalde auzoa zeharkatuz, eta Marutira iristerakoan, Maruti erreka ondoan dagoen pistatik jarraitzen dugu basoan zehar, argigune bateraino (40min.). Pista eskumatarantz biratzen da eta gorantz igotzen hasten gara. Aldatza igo eta gero (50 min.) bidezidor batek jarraitzen dugu gailurreraino (ordu bat).

Jaitsierarako, aurrera goaz bidezidorretik, berehala lurrezko pista batera heltzen gara eta bertatik jarraituz bidegurutze bateraino goaz (1,15 min.). Bertan eskumako bidetik jarraitzen dugu, bideak beheranzko joera nabarmena hartzen duen eukaliptoizko baso gazte batetik, hain zuzen ere.

Horrela Aretzabalagane errekaraino jaisten gara (1,45min.). Erreka zeharkatuz zubitik eta Sarrikolatik Urira doan bidetik plazaraino heltzen gara (ordu bi).



Testua: Lezamako Gailur Mendi Taldea

Iparraldea (Nord Cap), gaurdiko eguzkiaren bila

Bidaia luze eta interesgarria, iparralde-
ra jo, bidea amaitu arte. Auto-karabana eta
furgonetan ametsa.

Frantzia luzea, Alemaniako autopista
burrunbatsuak eta Danimarka lasaia gain-
ditu ostean, Stockholmeko portuan ferrya
hartu dugu, txiripaz hartu be, zeren ez
dago txartelik eta badaezpadako kolan
itxaron ostean, bodegako atetzarra furgo-
netaren zentimetro gutxira itxi da.

Hurrengo goizean Finlandian gaude,
Turkunen. Helsinki ostean mapan gora egin
dugu. Pasaia leun-leuna, lasaia, lakuak
milaka, milioika urkiren koloreez gozatuz.
Geroago eta iluntasun txikiagoa gauez,
loak hartzea kosta egiten da, kortinak
ondo itxita ohitzen goaz. Bero da, lakuetan
igeri egiteko beste. Uztaila ei da unerik
egokiena etortzeko.

Zirkulu polar artikoa zeharkatu dugu. Elur-
oreinengatik (renoak) autoa gelditu egin
behar da batzutan, bide erdian egoten dira
eta. Laponian gaude, Inarin, bere laku handia
eta bere eltxo txiki baina jasanezinak lagun
ditugula. Ezin Finlandia utzi saunan sartu
barik, gu kanpinekoan egon gara. Norvegian
sartu eta Nord Cap-erako ferrya hartu dugu.



Irla bat da. Bide estu batetik ehunka
auto-karabana, furgoneta, autobus, txirrin-
dula, denak ilaran. Heldu gara, harago ezin
da. Aparkaleku itzel bat, milaka turista, erai-
kuntza moderno eta eskultura alegoriko
batzuk. Denok gaueko eguzkiaren zain.
Lehen gauean ez dugu suerterik izan, laino-
tu egin da, baina bigarrenetan bai, eguzkiak
beherantz egin du baina estali aurretik
berriro gorantz doa. Itzultzeko ordua.

Itzulera Norvegiatik. Bideak eta pai-
saiak ez dire zer ikusirik, fiordoak nagusi
dira hemen. Mendi portua jaitsi, ferryz
gurutzatu fiordoa eta aldapa gora berriro.

Horrela fiordo bat eta beste bat. Ur-jausi
itzelak itsasora, glaziarrek, euria ere egin
digu. Ikusgarria bezain nekeza. Oslon 3
egun egin ondoren, Danimarkara ferryz
pasatu (bidaia osoan 15 ferry hartu ditugu)
eta etxerantz lasai.

Atzean utzi ditugu oso herrialde atsegi-
nak, zainduak bezain garestiak. Lo egiteko
arazorik ez, bide bazterrek egokituta
daude bertan gaua igarotzeko. Orain gaua
berriro gaua da.

Testua eta argazkia: Jose Angel Mentxaka

Sukaldaritza

Etxeko sukaldaritza

Txahalaren hegala laban erreta

Osagaiak (4 pertsonentzat)

Kilo bat hegal (falda)
Kinpula bat
Zanahori bi
3 berakatz-atal
Tomate bat
Baso erdi ardao zuri
Oliba orioa, gatza

Prestatzeko era

Ortuari guztiak txikitu eta ipini orio txorrostada bategaz presino-lapikoan. Hegala zati bitan erdibitu, gatza egin eta ipini ortuari guztien ganean lapikoan eta ardao zuria bota ganetik. 20 minutuan euki lapikoa martxan. Gero atara, rustidera baten ipini eta laba berotara sartu (180°). Likido asko badauka, ez bota dana batera; siketu ahala joan botaten. Euki laban tostau arte, 45 minutuan gitxi gora-behera, okelearen arabera... eta on egin!



Mari Tere Onaindia

Ganbez betetako zapo solomoak saltsa berdean

Osagaiak (4 lagunentzat)

8 zapo solomo
8 ganba
Berakatz apur bat
Kipula apur bat
Piper berde apur bat
Perrexil apur bat
Arrain salda
25 gramo irin
Olio

Prestatzeko era

Zapo solomoak xerratan ebaki, eta ganbez beteko ditugu. Gatza bota eta frijitu egingo ditugu.

Beste alde batetik, saltsa berdea egiteko, berakatz, kipula eta piper berdea olioztatu, eta irina, perrexila eta arrain salda botako dizkiegu. Zapo solomoak gehitu eta su motelean irakiten utziko dugu 5 minutuan. On egin!



Aramendi jatetxea Zamudion

LIBURUAK

"Ipuinek pertsonaiak galdu dituzte"

Txanogorritxo, otsoa, txarrikumea, Edurnezuri eta sorgina haserre eta marmarrear dabiz. Bilera antolatu dabe ipuinen pertsonaiak, zer egin? Umeek ez dabez euren istorioak irakurtzen. Alperrik dabil otsoa putz eta putz txarrikumeen etxea botatzen, zertarako hainbeste indar egin?

Betha taldeak egindako liburu honetan ikusiko dozue ipuinetako pertsonaien greba zelakoa izan zan.

DISKOAK

"Eritrea"
Faytinga

"Sing along with Putumayo"
Putumayo

"Congo life"
Kekele


"Chants et tambours de nubie"
Al-Nûbatiyya

"Tutelar never sep."

DENBORA PASA

Benetan ezagutzen duzu Txorierri?

Ez da Txorierri oso bailara artezalea. Kosta egiten da arte lanak gure herrietan aurkitzea. Hemen dituzue zazpi eskultura, gehienak modernoak, baten bat ez atzo goizekoa. Jakingo zenuke zein herritan aurkitzen da bakoitza?



LARRABETZU 1

ZAMUDIO 2

ERANDIO GOIKOA 3

SONDIKA 4

LEZAMA 5

LOIU 6

DERIO 7

Benetan ezagutzen duzu Txorierri? Emaitzak: A2, B6, C3, D1, E5, F7, G4



Antzerkia eta filmak

Zamudio

Hermano Oso, irailaren 17an; *El señor de los anillos*, *El retorno del rey*, irailaren 24an, 19:30ean, dorretxean.



Erakusketak

Zamudio

Zamudioko II. Pintura Lehiaketara aurkeztutako koadroak. Irailaren 10etik 30era bitartean, dorretxean.

Hitzaldiak

Zamudio

Otik 7 urtera bitarteko umeengan

irakurtzeko zaletasuna pizteko hitzaldiak. Irailaren 9, 20 eta 23an, 17:30ean, liburutegian.

Lezama

Energia berriztagarriak eta energia aurreztearen etxean. Irailaren 22an, 19:00etan, kultur aretoan.

Ikastaroak

Hainbat ikastarotan izena emateko epea irailean zabalduko da. Galdetu udal-letxeetan.

Irteerak

Loiu, Sondika, Zamudio, Lezama, Larrabetzu

Valentziara, urriaren 9tik 12ra bitartean.

Zamudio

Hiru Erregeen Mahaira, irailaren 10, 11 eta 12an.

Kilometroak (Orio), irailaren 19an.

Nafarroa Oinez (Lizarra), urriaren 17an.

Jaiak

Sondika

Santa Kurtze, irailean.

Loiu

Larrondo, abuztuaren 27tik 29ra bitartean.

Derio-Zamudio

Santimami, abuztuaren 17an eta 18an.

Derio

San Esteban, abuztuaren.

Zamudio

Sandoni, irailean.

Lezama

Andramariak, irailaren 2tik 9ra bitartean
Santa Kurtze, irailean.

Larrabetzu

Andramariak, abuztuaren 13tik 16ra bitartean.

San Bartolome, abuztuaren 24an.

Emeteriak, abuztuaren 30etik irailaren 1era bitartean.

Kirola

Zamudio

Zamudio-Zamudio Ibilaldi Zikloturista.
Irailaren 18an, 09:30ean, Bidekoetxe parkean.

Bestelakoak

Zamudio

San Martin jaiak antolatzeke batzarra, irailaren 7an, 19:00etan.

Autorik gabeko eguna, irailaren 22an.

